

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

Master Amaierako Lana

**Sanferminak eta Tauromakia.
Ondare Gatazkatsuaren inguruko
esku-hartze bat**

Ikaslea: Andoni Arrieta izu

Tutorea: Maria Teresa Benito Aguado

Espezialitatea: Historia eta Geografia

2023aren Ekaina

Laburpena

Lan honetan, unitate didaktiko bat proposatzen da, Iruñeko zenbait ondare lokaletan oinarritua. Ondare horiek guztiek modu batera edo bestera sanferminekin lotuta daude, eta horien gatazkadimentsioa azpimarratzen da, zezenketetan bereziki. Hainbat ondare elementu eta iturri dagokien testuinguruan kokatu eta aztertzen dira ikasleek animaliek sufritzen dituzten tratu txar edo emakumeak kulturaren duen presentzia bezalako gaien inguruan hausnartzeko eta haien ikaskideekin eztabaidan diskurtso kritiko propio bat garatzeko helburuarekin. Modu honetan haien hiriko ondarearen arazoez arduratuz hiritartasun kritiko eta parte hartzaile batentzako beharrezkoak diren gaitasunak garatzea bilatzen da. Esku-hartze honen ondorioak aztertu eta eztabaidatzen dira DBHko hainbat taldetan, ikasleen ondare kontzeptuaren ulermenean, zenbait ondare elementuren inguruan dituzten balorazioetan eta aurrera eramandako aktibitateen inguruko iritzian arreta jarritz.

Hitz gakoak: San Ferminak, Tauromakia, Ondare gatazkatsua, Ondare lokala, Iruñea.

Resumen

En este trabajo se propone una unidad didáctica centrada en diversos patrimonios locales de la ciudad de Pamplona, todos ellos ligados de alguna manera u otra a sus fiestas mayores, y se subraya la dimensión conflictiva subyacente a estos, centrándose especialmente en los festejos taurinos. A través de la contextualización y el análisis de diversas fuentes y elementos patrimoniales se busca que el alumnado desarrolle un discurso crítico propio en debate con el de sus compañeros respecto a temas como el maltrato animal o la presencia de la mujer en la cultura, implicándose de esta forma en los problemas concernientes al patrimonio de su ciudad y construyendo las capacidades necesarias para una ciudadanía participativa y crítica. Los resultados de la puesta en práctica de esta intervención educativa en diversos grupos de secundaria se analizan y discuten atendiendo a la comprensión del alumnado del concepto de patrimonio, su valoración de diversos elementos patrimoniales y su juicio sobre las actividades realizadas.

Palabras clave: San Fermín, Tauromaquia, Patrimonio conflictivo, Patrimonio local, Pamplona.

Abstract

This work proposes a didactic unit centered on several local heritage sites in the city of Pamplona, all linked in some way or another to their major festivities, and highlights the conflictive dimension underlying them, focusing especially on bullfighting celebrations. Through the contextualization and analysis of diverse sources and heritage elements, it is sought that students develop their own critical discourse in discussion with their colleagues on themes such as animal abuse or the presence of women in culture, thus implicating in the problems concerning the heritage of their city and building the necessary capacities for a participative and critical citizenship. The results of the implementation of this educational intervention in different high school groups are analyzed and discussed taking into account the students' understanding of the concept of heritage, their valuation of various heritage elements and their judgment on the activities performed.

Key Words: San Fermin, Bulls, heritage in conflict, local heritage, Pamplona/Iruña.

Aurkibidea

1. Sarrera	5-6
2. Marko teorikoa	6-24
2.1. Ondarea	6-10
2.2. Ondarea Hezkuntzan	10-14
2.3. Ondare Gatazkatsua	14-17
2.4. Tauromakia Ondarea	18-20
2.5. Sanferminak, Iruñako testuingurua	20-24
3. Esku-hartze proposamena	25-40
3.1. Testuingurua	25
3.2. Metodologia	25-26
3.3. Proposamenaren helburu didaktikoak	26-27
3.4. Curriculumarekiko lotura	27-29
3.5. Jardueren Sekuentzia	29-32
3.6. Ebaluazioa	32
3.7. Emaitzak	33-39
4. Ondorioak	39-41
Erreferentziak	42-45
Eranskinak	46-59

1. Sarrera

MAL honek hainbat gai ukitzen ditu maila ezberdinetan. Abiapuntua ondarearen kontzeptua da, eta honen barneko ondare gatazkatsua bereziki. Ondarea eduki gisa landuko da, bai lan honetan bai ikasgelan, baina ondare konplexu eta anitz batean zentratuko gara jarraian, Sanferminetan, eta honen barne, beste batzuekin batera, ondare gatazkatsu baten inguruan sakonduko da: tauromakia.

Master amaierako lan honek izaera bikoitza dauka, alde batetik esku hartze proposamen didaktiko bat garatzen da, ikasgelara eraman dena, bestalde honen eraginkortasuna probatzeko eta neurtzeko ikerketa aurkezten da. Honetaz gain bi alderdiak lotzen dituen marko teorikoa garatu da.

Ondarea gizabanako eta komunitateen nortasunean eragina daukan errealitate bat da. Pentsamendu historikoa lantzeko edota hiritartasun kritiko eta parte hartzaile bat garatzeko beharrezkoak diren balio demokratikoak garatzeko potentziala daukan tresna bat da, hortik egungo curriculumean daukan garrantzia eta lan honetan eskainiko diogun atenzioa.

Hurrengo ikerketa arazotik abiatzen gara: nahiz eta garrantzi gero eta handiagoa izan curriculum eta didaktikaren arloaren barne, ikasgelan ondarea noizbehinka, sakontasun edo kritika gehiegirik gabe eta kontzepzio monumental zaharkitu batekin erabiltzen den baliabide bat da (Castro et al., 2020). Ikasleek ere ez dakite ongi zer den. Sanferminak esate baterako, iruindar eta nafartar askoren identitatearen osagai esanguratsu bat izan arren ez dira normalean ikasgelan aztertzen den errealitate bat; bere ezaugarri eztabaidagarrienak, zeinen artean tauromakia aukeratu da, askotan hausnarketa edo kritikarik gabe onartzen dira tradizioaren inertzia jarraituz. Pentsamendu historikotik urrun nolabaiteko betikotasuna egozten zaizkie Sanferminei, baina bere ezaugarriak eboluzio luze baten ondorio dira eta etorkizun ireki bat daukate oraindik, zeinean ikasleek zer esanik ere badaukate.

Hutsune hau betetze aldera hurrengo hipotesia proposatu da: Bigarren hezkuntzako ikasleek esparru lokaleko ondarearen dimentsio gatazkatsua landuz gero honen inguruko balorazio kritiko propioa garatuko dute, herritartasun kritiko eta parte hartzailea bultzatuz.

Ikerketaren helburu orokorra (HO) Iruñako ondarearen inguruko proposamen didaktiko bat diseinatzea, praktikara eramatea eta herritartasun demokratiko eta parte hartzaile bat garatzeko duen eraginkortasuna neurtzea da. Honetaz gain Ikerketaren helburu espezifikoak hurrengoak izango ziren: Ikasleek proposamen didaktikoaren bitartez ondare kontzeptuaren oinarrizko ulermen bat garatu duten neurtzea (1HE), ikasleek ondare izan litezkeen zenbait elementuren inguruan dituzten

balorazioak, hala nola hauen aldaketak, neurtzea (2HE) eta ikasleek aurrera eramandako esku-hartzearekiko gogobetetasuna neurtzea (3HE).

Aipatutako ikerketa helburuen neurketak aurrera eraman ahal izateko erabiliko diren tresna nagusiak bi galdetegi izango dira, ikasleek unitate didaktikoaren hasieran eta amaieran beteko dituztenak, era honetan taldearen gaitasun eta ideien irudi orokor bat eskuratuko da. Galdetegi hauek, datu kualitatibo zein kuantitatibo ezberdinak eskaintzen dituztenak, autorearen obserbazioekin eta esku-hartze didaktikoan zehar ikasleek sortutako produktuekin osatuko dira.

Esku hartze didaktikoaren helburu orokorra ikasleak hiritar demokratiko eta parte hartzaileak bihurtzea izango litzateke. Nafarroako Batxilergoko curriculumak bere bosgarren artikuluan, xedeei dagokiona, dioen eran “prestakuntza, adimen eta giza heldutasuna, ezagutzak, eta trebetasunak eta jarrerak ematea, eginkizun sozialak garatzeko eta bititza aktiboan erantzukizunez eta behar bezalako gaitasunarekin sartzeko aukera izan dezaten” (Nafarroa, Hezkuntza Kontseilaritza, 2022). Ondare hezkuntza eta gatazken lanketa estuki lotuta daude helburu orokor hauekin, marko teorikoan azalduko den eran. Honetaz gain, esku hartzeak helburu konkretu batzuk dauzka, dagokion atalean azalduak.

Prestatutako unitate didaktikoa praktikara eraman da batxilergo lehen eta bigarren mailako ikasleekin Nafarroako Historia eta Geografia irakasgaietan. Irakasgai hau, bi mailatan hautagaia dena, batxilergoko ikasleen heldutasuna probesteko aukera eskaintzen du, beste irakasgaietan EVAUak inposatzen duen presioa sentitu gabe.

Dena den, unitate honetan lantzen diren kontzeptuak gaitasun gakoetan errotuta izanda eta ondorioz, batxilergo zein oinarrizko hezkuntzako irteera profilararekin harreman estuan egonda bigarren hezkuntzako edozein etapa zein mailan lan daiteke moldaketekin. Herritar konpetentzia eta kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako konpetentzia curriculumaren erdigunean daude kokaturik, maila guztietan lantzen dira sakontasun maila ezberdinekin ikaslearen garapen estadioak kontuan izanda.

Proiektu honek Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzea bilatzen du, konkretuki 4., 5., 11. eta 16. helburuak, hau izanik hurrenez hurren: kalitatezko hezkuntzaren helburua, genero berdintasunaren helburua, ondarearen babesa barne hartzen duen hiri eta komunitate jasangarrien helburua eta bake, justizia eta instituzio sendoen helburua biolentzia forma guztiak murrizteko edo maila guztietan erabaki parte hartzaile eta inklusiboak hartzearen bezalako azpigelburuak barne hartzen dituena.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Ondare Kulturala

Ondare kulturalak hainbat definizio dauka, baina *“Heritage in Classroom”* manualak abiapuntu gisa baliagarria izan daitekeen definizio bat eskaintzen digu: ondarea gu baino aurretik egon zirenen jarrera eta komunikazioaren aztarna eta espresioak dira, gaur egungo gizbanako edo gizarteek kontserbatzea erabakitzen dituztenak, egozten zaizkien balioengatik (De Troyeer et al., 2005).

Nabarmendu beharra dago ondare kulturala zer den eta zer ez zehaztea auzi benetan konplexua dela. Diziplina anitzetatik landutako kontzeptua da ondarearena, giza zientzietaz gain, zuzenbideak, hezkuntzak edota administrazioari lotutako jakintza arloek ikuspuntu ezberdinekin lan egiten dute. Honetaz gain bere sorreratik, hau da, XVIII. mendetik, estatu-nazio modernoaren jaiotzaren eskutik (Velasco, 2016), eta azken hamarkadetan batez ere, eboluzio esanguratsuak bizi izan dituen ideia da. Kontuan izan beharreko beste oztopo bat ondare kulturalaren definizioek subjektibotasunerako atea irekita uzten dutela izaten da, askotan definitzeko konplexuak eta baloraziorako aproposak diren beste kontzeptuetan oinarritzen baitira. Cuencak (2016) gai honekin lotutako edozein klasifikaziok izaera erredukzionista izanen duela uste du. Honekin ados egoterik ez den beste aukerarik ez dut aurkitzen.

Hala ere, ondare kultural kontzeptua era zehatzean definitzen saiatu diren tratatu asko sinatu dira Bigarren Mundu Gerraren ostean sortutako nazioarteko erakundeen aldetik. Duten garrantzia eta islatzen dituzten aldaketa zein ikuspuntu ezberdinengatik hirutan zentratuko gara: UNESCOk 1972an zein 2003an Parisen onartutako konbentzioak eta Europako Kontseiluak 2005ean Faron sinaturiko hitzarmena.

Aipatutako *Convención sobre la Protección del Patrimonio Mundial Cultural y Natural* (UNESCO, 1972) hurrengoak kontsideratu zituen ondare kultural bezala:

- los monumentos: obras arquitectónicas, de escultura o de pintura monumentales, elementos o estructuras de carácter arqueológico, inscripciones, cavernas y grupos de elementos, que tengan un valor universal excepcional desde el punto de vista de la historia, del arte o de la ciencia,
- los conjuntos: grupos de construcciones, aisladas o reunidas, cuya arquitectura, unidad e integración en el paisaje les dé un valor universal excepcional desde el punto de vista de la historia, del arte o de la ciencia,

- los lugares: obras del hombre u obras conjuntas del hombre y la naturaleza así como las zonas, incluidos los lugares arqueológicos que tengan un valor universal excepcional desde el punto de vista histórico, estético, etnológico o antropológico.

Aurretik babestutako eraikuntza eta arte plastikoko elementuei eraikuntza taldeak eta lekuak gehitu ziren tratatu honetan. Aurreko guztiak gaur egun ondare material gisa sailkatuko genituzke, baina aurreko tratatuan kontsideratu ez zuten kategoria bat da hau. Ondare kulturalaren kontzepzioa inmaterialtasunera zabaltzen hasi zen jada 50ko hamarkadan Japoniako Gobernuaren politikei jarraituz (Irigaray, 2013), baina 1972an ondare inmateriala guztiz definiturik gabeko jabetza intelektualarekin talkan sartu zitekeelaren kezka izan zuten tratatuaren autoreek (Velasco, 2016).

Bestalde 1972ko hitzarmenak ondasun jakin bat ondare kultural gisa errekonozitzeko ezartzen duen irizpidea hurrengo da: aipatzen diren zenbait diziplinen ikuspuntutik “balore unibertsala” izatea. Praktikan irizpide zehaztugabe honek ondarea zer zen eta zer ez inguruko erabakia UNESCOko adituen eskutan uzten zuen.

2003ko *Convención para la Salvaguardia del Patrimonio Cultural Inmaterial* ondare kultural inmaterialak gehitu zizkion 1972ko konbentzioari, honen ondare definizioa birformulatuz eta nabarmenki hedatuz. Ahozko adierazpenak, hizkuntzak, arteak, ikuskizunak, ohitura sozialak, erritualak, ospakizunak, ezagutzak, teknika tradizionalak eta tresnak barne hartzen zituen kontzeptu zabal bat izatera igaro zen ondarea (UNESCO, 2003).

Konbentzio honetatik ateratako definiziotik nabarmentzeko beste aldaketa bat ondare kulturalak identitate sentimenduekin erlazioan jartzea izango zen, ondare kulturalaren garrantzia ulertzeko funtsezko ezaugarria baita hau. Balore unibertsalen inguruan jardutetik dibertsitatez hitz egitera igaro zen UNESCO, izan ere ondarearen balioaren zati handi bat bere singularitasunean bilatu behar da, identitatea eraikitzen duen taldea beste talde batetik bereizi dezaketen berezitasunetan. Honen ondorioz azken hamarkadetako globalizazio prozesuen erreakzio gisa ondareari gero eta atentzio gehiago eskaini zaio (Soto, 2021).

Definizioan somatzen den beste aldaketa esanguratsu bat ondare kulturala zer den ezartzeko irizpidean antzematen da. Objektuan bertan dagoen balore bat izan behar dela kontsideratzetik komunitate, talde edo gizabanakoen errekonozimenduan kokatzera igarotzen da ondare izaera. Aurrekoarekin alderatuz gero definizio errealistagoa kontsidera daiteke eta ondareaz hausnartzean argi eduki behar dugu eraikuntza sozial baten inguruan hausnartzen ari garela, baina “ondare kulturala taldeek ondare kultural gisa onartzen dutena” dela kontsideratzea, tautologiara gehiegi hurbiltzen dela dirudi.

Europako Kontseilua, Bigarren Mundu Gerraren Ostean sortutako instituzioetako, bat Europar Batasunarekin nahastu behar ezin dena, integrazio paneuropearra eta giza eskubideen sustapena helburu izanik ondarearen inguruko politikentzako marko bat osatu du Faroko Hitzarmenean (2005). Honek ez du soilik ondare kulturalaren definizio bat eskaintzen, honekin batera “ondare komunitatea” deritzona definitzen du:

- a) por patrimonio cultural se entiende un conjunto de recursos heredados del pasado que las personas identifican, con independencia de a quién pertenezcan, como reflejo y expresión de valores, creencias, conocimientos y tradiciones propios y en constante evolución. Ello abarca todos los aspectos del entorno resultantes de la interacción entre las personas y los lugares a lo largo del tiempo;
- b) una comunidad patrimonial está compuesta por personas que valoran aspectos específicos de un patrimonio cultural que desean conservar y transmitir a futuras generaciones, en el marco de la actuación de los poderes públicos.

Gonzalez-Monfortek (2019) herrialde honetan dagoen ondarearen ideia frantsesen *patrimoine* eta ingelesaren *heritage* kontzeptuen sintesi bat bezala ulertu daitekeela azaltzen du, lehenak arbasoengandik jasotakoaren izaera azpimarratzen du, bigarrenak ondorengo belaunaldiei uzteko intentzioa. Biek ez dute beti bat egiten, herentzian jasotako ondare guztiak ez dira transmititzen, dela fisikoki suntsitu edo zeukaten balioa galdu dutelako. Bestalde sortzen diren ondare berriak finkatu eta belaunaldiz iraun dezakete. Ondareak daukan iragan eta etorkizunaren arteko zubi izaera argi jasotzen da Faroko tratatuan.

Honetan ez da UNESCOk ondare material eta inmaterialen artean mantentzen duen banaketa islatzen. Izan ere, ondare material guztiek alderdi inmaterial bat daukate, pertsonak aitortzen dioten esanahia, historia, zentzua... eta ondare inmaterial guztiek errealitate materialean oinarritzen dira (Fontal, 2020). Ondareetan zentratu ordez Faroko tratatuak gizabanakoek, ez berez taldeek, hauekin ezartzen dituzten erlazioak azpimarratzen ditu. Ondare izaera balore, sinismen, jakintza edo tradizio propioen islatzeko gaitasunaren egoztetik dator.

Laburbilduz nazioarteko hitzarmenek ondare kontzeptuaren eboluzioa eta honen inguruko ikuspuntu ezberdinak islatzen dituzte. Guztiek amankomunean izango zuten ondarea adierazpen kulturalaren osotasunaren barneko selekzio mugatu baten antzera ulertzea. Selekzio honen beharra kontserbazioan aurkituko zen azken finean (Delgado, 2020) gizakiek ezin baititugu bizi dugun kulturaren osagai guztiak mantendu, ezta hauek atzean utzi ere.

Ondare hezkuntzaren testuinguru konkretuan, eta espainiar estatuan zentratutako ikuspuntu are konkretuago batean, ondarea kontzepzio eta abizen ezberdinekin topatu dezakegu.

Fontalek (2020) ondareari buruz daukagun ideia garrantzitsua dela azpimarratzen du, hezkuntzan nola erabiliko dugun eta azken finean irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapena baldintzatuko baitu. Ondarea objektu, testu, testuinguru, sinbolo, norbanakoaren zabalpen edo lotura eran ulertu daitekeela proposatzen du. Dimentsio hauetatik abiatuta hezkuntza ikuspegi ezberdinak garatu daitezkeela azaltzen da, ondarea eduki bezala lantzeko atea irekita uzten du ere.

Cuencak (2002) aurretik agertutako ondare integral kontzeptua gaindituko zuen ondare holistiko kontzepzioa proposatu zuen. Ondare integrala ingurune eta gizartearen arteko harremanak kontuan hartzen zituen jada, ondare mota ezberdinak erabiliz errealitatearen analisi soziohistorikoak garatzeko, arkeologiaren esparruko hausnarketetatik abiatuta. Kontzepzio holistikoa ondare mota guztiak barne hartuko zituen, hauen arteko bereizketak errefusatuz ikerketa edo administrazioaren esparruetatik kanpo. Ondarea era interdisziplinarrean eta sistemikoan landu beharko zela defendatzen da honekin, gizartearen errealitatea eta estrukturak ulertzeko bide bat bihurtuz.

Kontzepzio holistikoa presentzia handia dauka ondare hezkuntzaren inguruko ekoizpen akademikoan, baina zenbait autore, Gonzalez Monfort edo Pages (2005) kasu, ondare kulturalean, kultural etiketarekin, zentratzen dira (Delgado et al., 2020). Komunitateek ondareari egozten dioten esanahi zein jarraikortasun eta identitatearekin duen erlazioa azpimarratzen dute antropologiatik hartutako bideetatik.

2.2. Ondarea Hezkuntzan

Ondarearen erabilpena hezkuntzaren arloan ez da kontu berri bat, historia eta artearen historia irakasteko baliabide bezala erabili izan da denbora luzez. Hala ere XX. mendeko azken hamarkadatik ondare-hezkuntzaren inguruko interesa eta ikerketa kopurua handituz joan dira hezkuntzan bide berriak jorratzen diren aldi berean (Cuenca et al., 2020). LOGSE (1990-2006) hezkuntza legearekin Espainiar estatuko curriculumean landu beharreko alderdi gisa agertu zen ondarea lehen aldiz eta bere presentzia mantendu du gaur egun arte. Legeetan pisua izan arren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren praktikan erabilera mugatu bat ematen da (Fontal et al., 2018).

Edonola ere egungo kezka nagusien artean globalizazioaren ondorioak, auzi ekologikoak edota demokraziaren kalitatearen ingurukoak kokatu daitezke. Hauei aurre egiteko hezkuntza ezinbesteko tresna bilakatu da eta egozten zaion helburuen artean nagusia haien errealitatea ulertzeko eta

honetan esku hartzeko gai diren hiritar kritikoak heztega egongo zen (Delgado eta Cuenca, 2020). Xede hau heltzeko ondare hezkuntzak hainbat abantaila edo potentzial eskaintzen dituela kontsideratzen da.

Azpitarratzeko lehen puntua ondareak bere izaera anitza eta ugaritasunari esker, ia nonahikotasunera heldu daitekeena honen mugekin jolastuz gero, esparru lokalean aurkitu daitekeen baliabide bat dela (Castro et al., 2020) eta egoera, behar zein berezitasun gehienetara moldatu daitekeela izango zen.

Bigarrenik ondareak ikaslearen identitate indibidual eta kolektiboaren garapena errazten duela kontuan izan behar da. Eremu lokaletik globalera aurkitu ditzazketen ondare elementuen kontserbazio eta kudeaketa beharren ezagutzak haien ingurumenarekin konpromiso bat ezartzera bultzatu ditzazke ikasleak (Lucas eta Delgado, 2020).

Ondareak gizartearen inguruko informazio garrantzitsua eskaini dezake: nor sortu eta mantendu zuen, zertarako, zer baloreekin lotzen zen edo hauek nola aldatu ziren. Lehen mailako iturri bat izango zen, epe luze bateko informazioa eskaintzen diguna. Ikasleak iraganen emandako aldaketaz jabetuz gero oraina eta etorkizuna eraldatzeko daukan aukeraz ohartu daiteke, bere erantzukizuna eta ekimena sustatzeko ezinbesteko baldintza (Santisteban et al., 2020). Hala ere irakaslea kontuz ibili behar da, ondarea ez da iturri akzidentala eta neutrala, indibiduo edo talde konkretu batzuk ezartzen dute interes jakin batzuekin eta botere erlazioak ezkututzen ditu maiz (Cuenca, 2016). Hau ez da oztopo bat bezala kontsideratu behar, ondarea testu gisa ulertuta “literacidad crítica” deiturikoa, hau da, hitzen edo kontakizunen atzean dauden ikusmolde eta ideologiak antzematea eta kritikoki zalantzan jartzea, lantzeko aukera eskaintzen baitu (Santisteban et al., 2016).

Ikaslea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren erdigunean kokatzea errazten da ondare hezkuntzaren bitartez, oso aproposa baita proiektuen bitartez lan egiteko. Gainera hauek era interdiziplinarrean garatzea ahalbidetzen du ondareak askotan, bere dimentsio anitzi eta diziplina ezberdinetan daukan presentziari esker (Callarisa et al., 2021).

Hezitzaileek ondareari ikusi diezaioketen beste abantaila bat ikasleen interesa erakartzeko daukan gaitasuna izango litzateke. Dena bere hurbiltasun edo identitatearen osagarri gisa daukan funtzioari esker ikasleen emozioak pizteko gaitasun handia erakusten du ondareak (Castro et al., 2020). Fontal (2007) ondare hezkuntzaren helburuetako bat sensibilizazioa dela kontsideratzen du, *ezagutzea-ulertzea-errespetatzea-baloratzea-zaintzea-gozatzea-transmititzea* sekuentzia jarraituz garatu daiteke hau, ikasleek haien testuinguru geografiko, historiko eta kulturalaren berezitasunez

ohartzean haien burua ezagutzen dute eta ondareari buruz daukaten balorazioa handitu egiten da, batez ere egungo ondarea askotan gutxien dena antzinakoari lehentasuna emanez.

Beste abantaila bat, emakumeek, batez ere eguneroko bizitzari lotutako ohituretan oinarritutako ondarearen sorreran zein transmisioan betetako paper garrantzitsuan topatu dezakegu. Era honetan tradizionalki historiografiak baztertutako kolektiboak azaleratzeko aukera eskaini dezake ondareak (Santisteban et al., 2020).

Azkenik kudeaketa egoki batekin ondarea, ikasle guztien eskura aurkitu daitekeen hezkuntza baliabide agortezin, eta ondorioz berriztagarri, bat dela aipatu daiteke. Honek interesgarria egiten du inklusibitatearen ikuspuntutik, egungo eskolak halabeharrez landu beharreko kontu bat izanik (Lucas eta Delgado, 2020; Delgado et al., 2022).

Aipatutako abantailatz gain ondare hezkuntzak hainbat oztopo edo zailtasun konkretu batzuk dauzka ere, zenbait jarraibide betez ekidin ahal direnak kasu gehienetan.

Askotan ikasle zein irakasleen aurre ideiak ondarearen inguruan ez dute honen dimentsio guztien jabetze bat ahalbidetzen. Antzinakotasuna lehenesten duen ondare materialean zentratutako kontzepzio monumentalista aurkeztu dezakete batzuk eta besteek. Ondarearen inguruko ikerketa akademikoek garatutako teoria ikasgeletaraino iristeko mugak aurkitzen ditu maiz. Arazo honi aurre egiteko irakasleen eta publiko orokorraren hezkuntzan sakontzerik baino ez dago (Lucas eta Delgado, 2020; Castro et al., 2020).

Bestalde benetan inklusiboa izateko ondare hezkuntzak talde guztien ondareak errespetatu eta sustatu behar ditu, batez ere gehiengo bat osatzen ez duten kolektiboena. Beste era batean hezkuntzari funtzio berdintzaile eta baztertzaila bat emango zitzaion, dibertsitatearen aurkakoa (Prats eta Santacana, 2014) Era berean propioa eta besteenaren arteko ezberdintasunak azpimarratzea bilatzen dituzten identitate diskurtsoak ekidin behar dira hausnarketa eta kritikotasuna landuz (Estepa, 2001).

Lucas eta Delgado (2020) praktika onen eredu kontsideratutako bigarren hezkuntzako irakasle baten jardutea sakontasunean ikertu ondoren ondare hezkuntza topa dezakeen oztopo handienen artean zenbait ikasleren interes falta kokatu zuten. Abantailen artean ondareak ikasleen emozioak eta interesa pizteko daukan gaitasuna aipatu dugu, kasu askotan honela izan arren gela bakoitzean topa daitezkeen bizitza, balore eta interesak oso ezberdinak izanik normala da guztientzako aparta den jarduerarik ez aurkitzea inklusibitateari begira hori gure helburua izan beharko zen arren. Honen aurrean metodologia eta gai ezberdinekin aritzea baino ez zaigu geratzen, ondare hezkuntza alderdi positibo anitzak dauzka ikusi dugun moduan, baina ez da aldiro erabiltzen den baliabide bakarra.

Pentsamendu historikoari dagokionean Seixas eta Mortonek (2012) prozesu sortzaile bat bezala definitzen dute, zeinean iraganeko ebidentziak historiaren inguruko istorioak garatzeko erabiltzen dira. Era honetan historia ez da soilik iraganeko datu batzuen kontaketa barneraketa, historiagileen produktua irenstea, zenbait arazo dakartzan interpretazio kontu bat bihurtzen da, prozesua burutzea bilatzen da, ikasleak historiagilearen tresnak menperatzea. Honekin lotutako sei galdera proposatzen dituzte Seixas eta Mortonek, ondareak hauetako bakoitzarekin zer erlazio izan dezakeen ikusiko dugu.

Zer da garrantzitsua? istorio bat osatzeko erantzun behar dugun lehen galdera da. Pista bezala aldaketak eragiten dituzten elementuak, puntu ilunak argitzen dituztenak edo kontakizun bat osatzeko garrantzitsuak diren elementuetan zentratzea gomendatzen dute Seixas eta Mortonek. Garrantziaren subjektibotasun edo erlatibotasuna nabarmentzen dute ere. Ondarearena azken puntu honekin lan egiteko kontzeptu bikaina dirudi, izan ere garrantzia eta subjektibotasuna bere definizioan bertan aurkitzen dira ikusi dugun eran.

Nola dakigu dakiguna? bigarren galdera izango zen. Lehen mailako iturri anitzak erabiltzea eta hauek haien autore eta testuinguruarekin erlazionatzea izango ziren gakoak. Ondarea lehen mailako iturri bat izaten da gehienetan, patrimonializazio prozesu bat bizi izan duena testuinguru eta bultzatzaile jakin batzuekin, autoreak edo beste agente batzuk izan daitezkeenak.

Hurrengo bi galderak jarraitasun-aldaketa eta kausa-ondorio binomioetan zentratzen dira. Ondarea denboran zehar hedatzen den fenomeno bizi eta dinamikoa den unetik baliagarria izan daiteke aldaketen ondorio eta zergatien galdetzen garenean. Esate baterako esku hartzean ikasleek sanferminetako kartelak aztertu zituzten epe jakin batzuetan, 1977 urtetik aurrera euskera agertzen zela nabarmendu zuten gertakizun historiko bat bilatzea eskatu zitzaizkionean. Trantsizio prozesua eta euskeraren ofizialtasuna atzean zirela ulertu zuten berehala. Aktibitate honekin bakarrik lehenengo lau galderari aurre egin behar izan zieten ikasleek.

Bosgarren galderak iraganeko jendearen ikuspuntuaz jabetzea eskatzen digu, gure perspektibak eragin dezakeen distorsioa saihestuz, ulertzeko intentzioarekin, ez zertan barkatzekoa. Ondare gatazkatsua honetarako bereziki interesgarria izan daiteke, gatazkak ikuspuntu ezberdinen existentziaren ondorio baitira, askotan testuingurua aldatzean azaleratzen direnak. Tauromakia lantzeko aukeratutako iturrien artean adibidez zezenketak debekatzen zituen bulda dago, honetan argi ikusten da aitasantuari animalien ongizatea ez zitzaiola inporta, arriskatzen zirenen arimak ziren bere ikuspuntutik kaltetuak.

Azkenekoa beharbada galdera garrantzitsuena izango zen: *Nola lagundu ahal gaitu historiak oraina bizitzen?* Dimentsio etikoaz arduratzen da galdera hau. Ondarearekin lotuz gero elementu jakin baten kontserbazioaren auzia, hau da, kontserbatu behar den ala ez, eta kontserbatzekotan nola kontserbatu beharko zen, burura etortzen diren kontuak dira. Gizarteak zer balore dauzkan edo izan behar dituen, ondarearen espazio sinbolikoan garatzen den eztabaida bat, azpimarratu daiteke ere.

2.3. Ondare Gatazkatsua

Ondarea ez da baliabide neutral bat, gatazka anitz garatzen dira honen inguruan maila ezberdinetan. Nork ezartzen du zer den ondarea, zertarako erabiltzen da, zer balore islatzen ditu, hauek nola moldatzen diren gizartearen dinamikekin edo kontserbazioak zer suposatzen duen kontuan izan behar diren gatazka eremu batzuk dira.

Ondare kontzeptuaren definizioak ikustean ondarea zer elementuk osatzen zuten inguruko erabakiaren ardura adituen eskuetatik gizartearen osotasunerantz mugimendu bat izan duela aipatu egin da. Hau aurrerapauso garrantzitsu bat suposatzen du, izan ere estatu-nazioaren egituraren garapenarekin ondarea identitate nazional amankomun bat osatzeko erabili zen, historia eta arte ederreko adituek zientzia eta estetikaren bitartez estatuaren ideologia berria justifikatzen zen eta biztanleriarengan identitate homogeen bat ezartzeko ahaleginak aurrera eramaten ziren. XX. mendearen erdialdetik ondarea identitatearekin erlazionatuz joan zen, bere izaera objektiboa galduz eta bere erabilpena beste kolektibo batzuen eskuetara zabalduz neurri batean. Dibertsitate eta homogeneotasunaren arteko tentsioa ikusarazi behar da ondarea gelan lantzean, kultura ezberdinen arteko alderaketak egiteko aukera eskaintzen baitu, baita hauen barne talde ezberdinetako gizabanakoen egoera ulertzeko (Arrieta, 2010; Santisteban et al. 2016).

Berez ondare izatera zuzendurik dagoen elementurik ez da existitzen, zenbaitek aukera gehiago izan arren. Ondarea, ondare gisa errekonozitua eta babestua izateko lehendik patrimonializazio prozesu bat igaro behar du. Prozesu hau garatzeko ondare jakin bat aktibatzeke interesa daukan agentea bultzatzaileak beharrezkoak dira. Interes politikoak, ekonomikoak edo ospearekin erlazionaturikoak izaten dira arrazoi ohikoenak, interes hauek haien artean edo beste batzuekin topo egin dezakete gatazkak sustatuz. Ondare bihurtzeko aukeratutako elementua arrakasta handia edo eskasa izan dezake, gizarteak propiotzat onartzen duen eta bere identitatearen osagarri bihurtzen den neurrian. Batzuetan islatzen dituen baloreak beste balore batzuekin talka egin dezakete eta kontrazko erreakzio bat sustatu, gehienetan ez da horrelakorik gertatzen baina honek ez du zertan adostasuna suposatu behar, axolagabekeriaren isla izan daiteke kasu gehienetan (Arrieta, 2010).

Zenbait elementu ondare bihurtzen diren era berean ondare izaera galdu dezakete despatrimonializazio prozesuen bitartez. Ondare materialaren kasuan suntsiketa arriskua egoten da, gehienetan kontserbazioak suposatzen dituen arazoengatik. Gerra testuinguruetan ondarea nahita suntsitzen da era bortitzean zenbait kasutan, honekin identitate, kultura eta tradizio batzuen amaiera bilatzen da, beste batzuegatik ordezkatuak izateko. Beste batzuetan kaleen izenak aldatzen dira edo aurreko erregimen monumentuak eraisten dira. Ondare inmaterialarekin interes falta arrisku handiena izango zen, etorkizunera transmititzeko interesa galtzen bada uneren batean tradizioak ahaztu eta betirako desagertzen baitira euskarri materialak daukan iraunkortasun erlatiboaren abantailarik gabe. Pertsonen interesa galtzea ondare izaera galtzea suposatzen du neurri handi batean, baina elementu jakin batzuk interesa galdu eta berreskuratu dezakete testuingurua aldatzean. Interesak beti ere ez dira homogeenak eta patrimonializazioarekin gertatzen den era berean talka egiten dute botere erlazio jakin batzuen testuinguruan (Gonzalez-Monfort, 2019).

Melé (2010), zer den ondare erabakitze orduan talde menperatzaileei lotutako produktu kulturalen aldeko joera bat dagoela salatzen du. Talde menperatuek zailtasun handiagoak aurkitzen dituzte haien identitatearen osagarri diren elementuen errekonozimendua eta kontserbazio lortzeko orduan. Era honetan dominazio sinbolikoa gauzatzen da.

Bestalde ondarearen ideia zabaldu eta garrantzia irabazten duen heinean beste kausa edo alderdietan zentratutako gatazketan erabilia izaten da. Adibide nahiko ohiko bat hirietako alde zaharretan aurkitu daitezke, honetan ondarea, materiala batez ere, pilatu egiten da, oinezkoentzako espazioak dira zeinean aisialdi aktibitate anitz garatzen dira. Bertan bizi diren auzokideak hainbeste aktibitatearen ondoriozko zarataz nekatu ahal dira eta arazoari aurre egiteko zarataren aurkako araudiaz gain ondarea babesteko araudiaz baliatu daitezke aktibitateen ordutegia edo zenbait denden ezarpena mugatzeko. Gatazka ez da ondarearen identitate edo baloreen inguruan zentratzen kasu honetan, ez da bere ezarpen edo kontserbazioaren ondorio soilik ezta ere (Melé, 2010).

Ondare hezkuntza kritikoaren funtsa honetan aurkituko zen, ondareen atzean, bai iraganean baina batez ere egun, aurkitzen diren botere erlazio, narratibak eta interesak ezagutzean. Ezin da kontserbazioa era akritikoan defendatu, ondareak zer esanahi ideologiko eta zer erabilera politiko dauzkan ulertzeko galderak egiteko tresnak eskaini behar ditu hezkuntzak. Ondarea ez baita soilik iraganeko kontu bat, orainean eta etorkizunean eragina daukan errealitate bat izanez galdera deserosoak planteatu behar ditugu honen inguruan ikasleek haien errealitate eta interesetatik berrinterpretatzeko aukera izateko (Santisteban et al., 2020).

Controversial issues-en tradizio ingelesetik edo *questions socialement vives* frantsesaren ikuspuntutik ondarea baliabide oso interesgarria izango litzateke interpretazio, eztabaida eta kritikarako aukera

eskaintzen baitu maiz. Honi esker ikasleek gertakari baten inguruko ikuspuntu ezberdinak kontsideratu ditzazkete eta elkarrekin landu haien inguruko errealitateak eraldatzera begira. Prozesu honek norbanakoaren subjektibitatearen eraikuntzan eragina dauka, bere papera besteengan nola pentsatzen duen aldatu dezake, konpromezu politikoa bultzatzen dezakena (Calderon eta Oller, 2021).

Ondarea aldioro aldatzen, eztabaidatzen, konpontzen, borrokatzen, berreskuratzen eta berrinterpretatzen den kontu bat da. Honek aukera bat eskaintzen du ikasleen interbentzio sozialerako ahalmena praktikara eraman dezaketen proiektuak garatzeko, ondarearen inguruko ikuspuntu ezberdinak elkarren artean eztabaidan jartzeko eta adostasunak bilatzeko. Era honetan gizarte demokratiko batek behar dituen baloreak garatu ditzazkete (Pedrouzo eta Castro, 2021).

Santisteban, Gonzalez-Monfort eta Pagès (2020) ondareari buruzko zenbait gai eztabaidagarri biltzen dituzte:

- Gatazken, eta batez ere gerren eragina ondarearen kontserbazio eta erabilerarengan.
- Ondarearen komertzializazioa, honen izaera publiko edo pribatua, bere ustiapena eta jasagarritasuna.
- Turismoa eta ondarearen arteko erlazio gatazkatsua.
- Nola zenbait ondare mota ondare gisa kontsideratu daitezkeen edo ez.

Bestalde Estepa-Giménez eta Martin Cáceres (2018, 2020) ondare gatazkatsuen klasifikazio bat garatu dute. Honetan ondare gatazkatsua bi taldetan banatzen da, berez gatazkatsuek diren ondareak, 1. taulan ageri direnak, eta ondare isilaraziak, 2.ean.

1. taula.

Ondare gatazkatsu motak.

Mota	Definizioa	Adibidea
Antiondarea	Kontrabaloreak errepresentatzen dituen ondarea, gizakiek gauzatutako gerra, pertsekuzio eta errepresioen oroimena gordetzen da hauetan	Auschwitz
Ondare dilema	Ohitura, balore, sinismen... tradizional eta modernoak egungo gizartearen aniztasun eta ikusmolde berriekin talka egitea irudikatzen duten ondareak	Festa erlijiosuak gizarte laikoetan

Krudelkeria Ondarea	Pertsona edo animaliangen biolentzia fisikoa suposatzen duten ondareak	Oilar-borrokak
Interesen ondarea	Bere erabilera eta kontserbazioaren ondorioz logika ekonomiko, ekologiko eta sozialaren arteko gatazkak eragiten dituzten ondareak	Amazonas oihanaren deforestazioa

Taula propioa (Estepa eta Martin, 2020) egokituz.

2. taula

Ondare isilaraziak.

Ondare femeninoa	Emakumeen sorkuntza den edo genero ezberdintasunen inguruan hausnartzeko aukera eskaintzen duen ondarea	Emakumeek idatzitako literatura
Menderatuen Ondarea	Kultura dominatzaileen ezabatzea sufritzen duen ondarea	Ondare indigena
Berreskuratutako Ondarea	Bidegabekerien erakusle gisa agerikotasuna eskuratzen duen menderatuen ondarea	Agerikotasuna daukan ondare indigena

Taula propioa (Estepa eta Martin, 2020) egokituz.

Sailkapenekin amaitzeko Lejla Kodrić (2018) *absent heritage*, *difficult heritage* eta *dissonant heritage* ondare motak aipatzen ditu. Lehenengoa jada existitzen ez diren baina oroitu nahi diren toki eta objektuek osatutako ondarea izendatzeko erabiliko zen, Berlineko hesia edo Dorre Bikiak kasu. Bigarren kontzeptua gainditutako iraganeko erregimenen ondare gatazkatsua espezifikoki lantzeko erabiliko zen. Hirugarrena, bigarrena barne hartuz, hau baino zabalagoa izango zen eta aurretik ikusitako antiondarearen sinonimo kontsideratu dezakegu.

2.4. Tauromakia: Ondare gatazkatsu bat

Tauromakia, hau da, zezenekin ospatzen diren ikuskizunak, era askotan azaldu daiteke. Ezagunena, eta instituzionalizazio maila handiena daukana, zezen-plazetan ospatzen diren zezenketak dira, baina ospakizun popular oso ezberdinak, odoltsuak izan daitezkenak ala ez, barne hartzen ditu tauromakiak.

Tauromakiak aldeko eta aurkako iritziak merezi izan dituen auzi bat izaten daramatza gutxienez bostehun urtez. Honen froga 1567 urtean Pio V. aitasantuak *De salutis gregis dominici* buldaren bitartez ezarritako debekua izango zen, eskumikatze zigorra ezartzen zuena betetzen ez zutenentzat. Honen arrazoiak erlijioitsuak izango ziren, gizakien arimen salbazioan zentratutakoak, baina aro modernoan zehar bestelako argudioak topatu daitezke, ekonomikoak edo krudeltasunaren aurkakoak. Felipe II.aren presioaren ondorioz Gregorio XIII.ak debekua deuseztatuko zuen zortzi urte beranduago *Exponi novis* enziklikaren bitartez.

Kontuan izan behar da Erdi Aro eta Aro Modernoko zezenketak egungoen nahiko ezberdinak zirela. Protagonistak nobleziako kideak izaten ziren, zezena haien zaldietan igota erasotzen zuten, zaldi hauek egun erabiltzen ziren babesik gabe erabiltzen ziren eta asko destripaturik amaitzen zuten haien bizitza. Honek aurkako argudio ekonomikoak sustatu zituen ere. XVII. mende amaieran oinezko batek zezenari azkena emateko ohitura hasi zen eta XVIII. mendean zehar ikuskizunaren protagonista bihurtuko da, zezenketa modernoa finkatuz (Codina, 2018).

Animalien sufrimendua eragiten zuten ikuskizunak ohikoak ziren Ilustrazioaren aurreko Europan. Argien mendean gehienak debekatuak izan ziren arrazoia eta aurrerapenaren izenean, hala gertatu zen baita zezenketekin. Carlos III.ak eta Carlos IV.ak hainbat debeku ezarri zituzten, mugatuak hasieran eta erabatekoak lehenengoak porrot egitean. Dena den ez dira guztiz beteko eta frantziar inbasioarekin Jose Bonapartek baimendu egingo ditu. Berrezarritako Fernando VI.ak tauromakia sustatu egingo du, zezenketa eskolak irekiz unibertsitateak ixten zituen aldi berean. Zezenketak debekatzeko zenbait proiektu egon arren, aurrerantzean Espainiar estatuak legalki babestuko ditu eta identitate nazionalarekin erlazionatuko dira. Frankoren diktadurak lotura hau indartu egingo du (Codina, 2018).

Azken hamarkadetan hainbat debeku saiakera egon dira autonomia mailan. Kanariar uhartetan arrakasta izan zuten eta 1991 urtetik ez dira ospatu. Aldiz Kataluniako *parlament*-ak 2011an ezarritako debekua, zeinean motibazio identitarioak animalien defentsarekin nahasten ziren, Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi zuen. Berdin gertatu zen Balearetan non ikuskizunaren krudeltasuna mugatuko zuten neurriak ezartzen saiatu ziren. Zezenketa kopurua eta sostengu

popularra beheranzko joera jarraitu arren tauromakiak komunikabide handien zein botere politiko eta judizialen babesa gozatzen jarraitzen du.

Historia luzea daukan gatazka bat izanik zenbait argudio finkatu egin dira alde eta kontra. Baita zenbait ideia faltsu eta falazia anitz ere. Aldekoen argudioen artean tauromakiaren ondare izaera nabarmentzen da. Tradizio hau Espainiar kultura eta identitatearen osagarri garrantzitsu bat kontsideratzen du estatuko legeak (Espainia, Gorte Orokorrak, 2013). Bestalde sektoreak daukan pisu ekonomikoa azpimarratzen da, sortzen dituen lanpostu eta aberastasunaren inguruko zenbakiekin. Dehesaren paisaiaren jarraipenean zezenak daukan papera defendatzen da, edo lidia arrazaren berezitasuna, hauei balore ekologiko bat egotziz. Landa eremuan daukan inpaktu ekonomikoa aipatzen da ere (Villegas, 2017).

Tauromakiaren aurkakoek sektoreak aktibitate honek jasotzen dituen diru-laguntza anitzak seinalatzen dituzte, nazioarteko mailan herrialdearentzako kaltegarria den irudi bat eskaintzen dela argudiatzen dute zenbaitek eta batez ere animalien sufrimendu zein eskubide urratzea salatzen dute, hala nola aktibitate hauetan parte hartzen duten gizakienganako eragin kaltegarria (Codina, 2018).

Dena den gatazkaren funtsa etika eta moralaren arloan kokatzen da. Gizaki eta animalien arteko erlazioen eztabaida zabalago baten barne kontsideratu daiteke. Tauromakiaren defendatzaile sutsuenek eta animalien aldeko aktibista asko adostasun puntu batera iristen dira aurkako intentzioarekin: tauromakia animalientzako kaltegarria izanik egungo abeltzaintza askoz okerragoa da, eta ondorioz animalien aldeko posizio koherente batek biak onartu edo arbuiatu behar ditu (Galindo, 2018; Savater, 2011; Boix, 2011). Tarteko puntu bat bilatzen dutenak badaude ere, animali jatorrizko produktuak kontsumitzea osasunerako beharrezkoa dela argudiatuz, baina ebidentzia zientifikoa proposizio honen aurka doa. Bestalde animalien esplotazioaren aurka zein tauromakiaren aurka dauden pertsonak, baina lehenaren abolizioa urrun ikusiz bigarreanean zentratzen direnak, badaude ere, hala nola beste ikuspuntu anitz asko.

Zezenzaleen literatura apologetikoak Peter Singerrek 70ko hamarkadan proposaturiko “espezismo” kontzeptuaren aurka zuzentzen da maiz. Honek izaki sentiberak beste espezie baten parte izateagatik sufritzen duten diskriminazioa salatzen du, razismo edo sexismoarekin alderatuz. Formulazio antiespezista ezberdinak garatu dira eta eragin nabarmena daukate egungo mugimendu animalistetan. Zezenzaleek animali jatorrizko produktuen kontsumitzaile ohikoek tauromakia salatzean kontraesan batean erortzen direla argudiatzen dute, baina bizimodu begano bat daramatzaten tauromakiaren aurkakoek aurrean zailtasunak aurkitzen dituzte. Argudio kontraktualista ezberdinetara jotzen dute maiz: “animaliek gureganako betebeharrak errekonozitzen ez dituztenez gizakiok ez dauzkagu haienganako ardurarik”, baina logika hori jarraituz ez dira gizaki

guztien eskubideak errekonozitzen ezta ere, zenbait ezgaitasun daukaten pertsonak edo etorkizuneko belaunaldienak, esate baterako, ez baitituzte beti betebeharrak kontraktualistak errekonozitzen ezta betetzen (Singer, 2019). Bide hau jarraituz gero tauromakiaren inguruko eztabaida interes pedagogiko handia irabazten du, ez baita soilik animaliek sufritzen dituzten kalteetan zentratzen, tratu txarrak eskaintzen dien gizartearen motibazio eta kontranesanetan barneratzeaz gain dibertsitatearen errespetuarekin lotu ahal baita.

Honen adibide bat Puleok (2004) erakusten digu, honen aburuz zezeketek dominazioaren logika irudikatzen dute, ezberdintasunak nagusitasun eta gutxiagotasun terminoetan ulertzen duena eta gizakien arteko edo gizarte eta ingurumenaren arteko erlazioetara zabaldu daitekeena. Gizakiaren alderdi emozionala, beldurra toreatzailearen kasuan edota gupida ikuslearenean, itzaltzea suposatzen duen erritu bat bezala ulertzen du ere.

2.5. Sanferminak, Iruñako testuingurua.

Sanferminak iruindar askoren ondare kuttunetako bat da. Uztailaren 6tik 14era ospatzen den jaialdia hiriburuko bizilagun eta nafartar askoren identitatearen osagai diren jarduera eta ikur anitz barne hartzen ditu. Atal honetan klasean eskultura ezberdinen irudiekin batera aurkezteko prestatutako diskurtsoa azalduko da, festen kartelen analisiarekin batera.

Egungo Sanferminak hiru ospakizun ezberdinen elkarlotzearen ondorioz sortu ziren Joaquin Arazuriren ustez. Alde batetik Nafarroako kopatroi den sainduaren ohorean ospatzen ziren zeremonia erlijiosuak kontuan izan behar ditugu. San Fermin sainduaren existentzia nahiko zalantzazkoa da, kondairak III. mendean Iruñean jaio eta Amienseko lehen apezpiku bihurtu zela dio. Argi dirudiena bere ohorean antolatutako eginkizunak XII. mendetik ospatzen direla izango litzateke, sainduaren erlikiak Amiensetik ekartzearen ondorio. Hasiera batean urriaren 10ean antolatzen ziren, 1591 urtera arte, zeinean uztailaren 7ra aldatu ziren (Arazuri, 1983).

Bestalde 1324tik Iruñea feria bat ospatzeko pribilegioa eskuratu zuen Karlos I.aren eskutik, kasualitatez feria honen hasiera urriaren 10ean finkatu zen, sainduaren ospakizunekin bat eginez (Arazuri, 1983). Puntu hau azaltzean erdi aroko feriak suposatzen zutena sakonago azaltzeaz gain Sarasate pasealekuko eskulturen historia azaldu daiteke, nola XVIII. mendean Madrilgo Errege Jauregirako sortu ziren, Espainiako historiako pertsonai garrantzitsuen talde baten barnean. 1885 urtean, orduan Valentzia pasealekua deitzen zena berritzeko lanak hastean alkateak erregeari Nafarroako hainbat pertsonaien estatuak eskatu zizkion, honek eskakizuna onartu zuen, baina

estatuak, erregearen biltegitik irizpide handirik gabe hartuak, identifikazio ziurrik ez daukate, hortik ia edozein errege izateko posibilitatea (Azanza et al., 2010).

Azkenik zezenketak aipatu behar dira, 1385 urtean dokumentatzen dira lehen aldiz, Gaztelu Plazari bere izena eman zion gazteluan (Arazuri, 1983). Gaztelua desagertuta Nafarroako konkistaren ostean, denbora luzez zezenketak plaza honetan ospatu ziren, 1843 urtean lehen eraikin finko bat altxatu arte. 1922an egun erabiltzen den zezen plaza eraiki zen, zenbait erreforma bizi dituena. Gaur egun munduko bosgarren zezen plaza handiena kontsideratzen da 19500 ikusleentzako edukiera batekin.

Zezen plaza Nafarroako azken mendeko historiaren une garrantzitsuekin lotura estua dauka. Gerra Zibila piztean detentzio-esparru bilakatu zuten altxatuek. Errepresio hau ez ahazteko memorial bat eraiki da duela gutxi, zezen plazaren ondoan, honek exekutatu biktimak ezkutuan lurperatutako hobietatik ateratako lurra dauka eta beste bost detentzio-esparru ikusten diren puntu batean kokatzen da. 1978ko Sanferminen memoriarekin lotutako toki bat da ere, bertan anmistiaren aldeko pankarta batzuk ateratzearen ondorio poliziak errepresio neurrigabe bat burutu zuen, suzko armak erabiliz, German Rodriguez gazteari bizitza kostatu zitzaiona. Gertakari hauek oroitarazteko oroitarri bat altxatu zen Germanen omenez, zenbait aldiz erasotua izan dena talde eskuindarreatatik, mazak, palankak, margo hori eta gorria, lehegailuak eta udala bera ere sinbolo hau desagerrarazteko erabili dira arrakastarik gabe. Azkeneko eskultura honen helburu berarekin 2018an “Gogoan” monumentua altxatu zen nahiko hurbil, biak Nafarroako memoria historikoaren toki deklaratu dira (Nafarroa, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia, 2019).

Entzierroa zezenketak bezain zaharra dela kontsideratu daitezke, zezenketak ospatzeko zezenak zezen plazara eramane behar baitira. Baina korrikatzaileen parte hartzea ez zen erregulatu 1867 urtera arte, eta oraindik 1876an udaleko zinegotziek debekatzea eztabaidatzen zuten. Aurretik autoritateen jarraibideen aurka plazara eramane ziren zezenen aurrean korrika aritzen ziren gizon gazte batzuen kontu bat zen, garrantzi eskasekoa. Errekonozimendu ofizialaren ostean gero eta pertsona gehiago gehitu dira festaren ikur nagusietako bat bihurtu den aktibitate honetara, baina emakumeen parte hartzea ez zen baimendu 1974 urtera arte, zenbait urte igaro ziren benetan lehen emakumeak korrikatu zuten arte eta gaur egun gutxiengo murriz bat dira ere. Ibilbidea aldakuntza anitz bizi izan ditu historian zehar ere, 1867an finkatu aurretik San Nikolas kaletik sartzen ziren urte askotan eta Gaseko Eskortak eraiki aurretik Sarioko zelaietan itxoiten zuten (Arazuri, 1983; Izu, 2021).

Jaialdiaren nazioarteko ospea Ernest Hemingway idazlearen idazki eta tauromakiari zion adorearekin lotu da. Zalantzarik gabe pertsonai honen irudia indarrez Sanferminekin lotu da eta hauen ospari ekarpen bat suposatu du, baina Izuren aburuz Sanferminak jada ezagunak ziren nazioarteko mailan,

beste pertsonai bati esker zehatz-mehatz: Pablo Sarasate. Bere garaian musikaren izar bat bihurtu zen biolinistak kontzertuak eskaini zituen dohainik bere jaioterriko jaietan 1876tik bere heriotzara arte, 1908an. Turismoa eliteen kontu bat zen XX. mende hasieran, Biarritz modako helmuga turistikoa, Sarasate bertan etxe bat zeukan eta badirudi Sanferminak bertako goi klaseko turisten artean ezaguna egin zuela (Izu, 2021). Urtero iruindarrek ongietorri bat antolatzen zioten artistari hirira iristean eta bere izena jarri zioten aurretik Valentziako pasealekua zenari. Bere kontzertu arrakastatsuenenatariko bat 1882 urtean Gayarre abeslari erronkariarrarekin emandakoa izan zen, honek ere hiriko antzerkiari izena ematen diona (Arazuri, 1983). Hiru pertsonai hauek estatuak dituzte hirian, Hemingway zezen Plazaren sarreran, Sarasate Media Luna parkean eta Gayarre Takoneran (Azanza et al., 2010).

Hiriko estatuak honen historiarekin lotutako hainbat pertsonai ezagun aurkezten dituzte, baina hauetako oso gutxik errepresentatzen dituzte emakumeak. Emakumezkoak agertzen diren eskultura eskasetan kontzepzio abstraktuak irudikatzen dituzte. Kaleen izenetatik desagerrarazi dira ere, hamar kaletik bat baino ez darama emakume izenik.

Jada aipaturiko hasiera dataren aldatzeari iraupenarenaren aldaketa gehitu behar zaio. Tradizionalki uztailaren 6ko eta 14ko mezen tartean garatzen dela festa kontsideratzen zen. Gaur egun ikasle gehienek Txupinazo eta *Pobre de mi* zeremoniak antzematen dituzte festaren hasiera eta amaiera une gisa. Biak XX. mendean sortutako ohitura popularrak dira, ekimen ofizial bihurtutakoak laster. Txupinazoaren kasua bereziki aipagarria da, 1901 urtean zenbait kohete jaurti ziren Gaztelu Plazatik, 1931 urterarte piroteknikaren enplegatuek arduratzen ziren, urte horretan Juanito Etxepare, estanko batean lan egiten zuen auzokidea kohetea botatzen hasi zen. Gerra Zibilean fusilatu egin zuten eta bere tabako denda bereganatu zuten erreketek. Handik aurrera alkatea arduratuko zen txupinazoaz, laster udalera lekualdatuz. Baina Txupinazoa hasi aurretiko hamaiketakoa, eta *Pobre de mi*-aren ostean garatzen den Villavesaren Entzierroa, Sanferminen parte bihurtu diren beste ohitura popular batzuk dira eta festaren muga kronologiak zabaldu ditzazkete (Arazuri, 1983; Izu, 2021).

Sanferminetako kartelak ondare kontsideratu daitezkeen beste iturri interesgarri bat dira. Hauen aukeraketa sistema aldatu egin da denborarekin, enkargu zuzenetik, komisio batek kontrolatutako konkurtso batera 1932an eta, gaur egun, preselektzio baten osteko bozkaketa irekira (Ortigosa eta Latre, 1988).

Hauen garrantziaren erakusgai prentsak urte askoz zuzendu dion atentzioa da. Bereziki interesgarria da 1952 urteko kartelarekin gertatutakoa. Urte hartako konkurtsoaren kartel irabazlea txurro batzuen irudia aurkezten zuen lehen planoan. Gai berritzaile bat zen eta kritika anitz jaso zituen

prentsan, festen errepresentatibitate falta leporatzen zitzaion gaiari. Hiru aldizkari existitzen ziren Nafarroa mailan une hartan: El Pensamiento navarro, karlistei lotua; El Diario de Navarra, gaur egun ere lerro kontserbadorea daukana eta Arriba España; azken hau tematu egin zen polemikarekin ardura zeukan komisiao kartela aldatu arte. Aukeratutako lehen kartela egin zuen artista berdinarekin beste kartel bat ezarri zen, entzierroaren gaiarekin bigarren aldi horretan (Ortigosa eta Latre, 1988).

Aldaketa eta jarraitutasuna modu grafikoan erakusteko aparteko balioa dutenez, kartelak proposamen didaktikoaren funtsezko zati izango dira. Horien guztien originalak Iruñeko Udal Artxiboan aurki daitezke, eta pentsamendu historikoaren eskumenak garatzeko lehen mailako iturri historikoa dira. Proposamen didaktikoan aurrera eramatean ikasleak taldeka banatu eta epe jakin batzuetako kartelak aztertzea jarri ziren. Agertzen ziren gaiak zenbatzea eta gertakizun edo prozesu historikoren bat bilatzea eskatu zitzaien.

6. taulan gaien zenbaketaren emaitzak ikus daitezke. Gizon eta zezenak dira gai errepikatuena, askotan elkarrekin agertuz. Emakumeek presentzia nahiko eskasagoa daukate, musika edo erraldoi, kiliki eta zaldikoen antzekoa. San Fermin gai urriena da. Eboluzioari dagokionean zenbait garai aurrekoetatik nahiko ezberdintzen dira, haustura puntu batzuk iradokitzen diguna. Frankismoarekin esate baterako gai aniztasuna murriztu egiten da era nabarmenean, baita emakumeen presentzia. Azken hiru hamarkadetan aldiz gaiak dibertsifikatu egiten dira, gizon eta zezenen konbinazioa ohikoena izanik jarraitu arren.

6. taula

Sanferminetako kartelen gaiak epeka.

	1846-1913	1914-1939	1940-1966	1967-1990	1991-2022	Guztira
Emakume	7	13	2	1	0	23
Gizon	24	18	23	20	12	97
Zezen	24	10	22	20	9	85
Musika	8	9	2	3	2	24
Erraldoi/Kiliki	3	6	3	2	5	19
San Fermin	2	0	1	1	4	8

Gertakizun edo prozesuei dagokionean talde gehienek baten bat topatzea lortu zuten, euskararen inklusioaren adibidea jada aipatu dugu, sakonago azaldu daitezkeen pare bat gehiago aipatuko ditugu.

1901eko kartela bereziki interesgarria da. Foruen Monumentua ageri da, hau eraikitze prozesuan zegoen momentu hartan, baina badirudi nola izango zen ezarri zela jada. Eskultura hau, herri harpidetza bitartez finantzatua, 1893 urtean gauzatu zen Gamazada oroitzeko altxatu zen. Hau nafarroako foruen aldeko protesta masibo bat izan zen, hauek urratzen zituen German Gamazo ogasun ministro espainiarraren erreforma proiektua etetea lortu zuena. Honetaz gain kartelean Pablo Sarasateren erretratu bat eta cucaña bat ageri dira. Cucaña San Fermin askotan presentzia izan zuen ikuskizun bat izan zen, zeinean hurrek makil luze eta irristakor bat igo behar zuten goian zeukan saria eskuratzeko. Hainbat zauritu larri egon ziren urteetan zehar, txurro-saltzaile gisa bizitza irabazten zuen hamasei urteko gazte baten heriotzaren ostean erretiratu zituzten arte.

1912 urteko kartelean Navas de Tolosako guduaren zazpigarren ehunurtekoa ospatzeko ekitaldi bereziak egongo direla azaltzen da. Zergatik urte horretan garrantzia eman zitzaion eta 2012ean aldiz Nafarroako konkista zarata gehiago egin zuen hausnartu daiteke, hau da, historiaren erabileraren eta nazionalismoaren inguruan. 1939 urteko kartelak "Año de la victoria" idatzirik darama. Deigarria da nola 1914-1939 tartean hainbeste emakume agertzea, 1919 urteko kartelean haize tresna musikal bat daraman musa bat ageri da esate baterako, ikasleei garaiko aldizkari batean "excesivamente fresca" ageri zela epaitu zutela azaldu ahal zaie (Ortigosa eta Latre, 1988). Berdin gertatu zen 1926 kartelarekin, emakumeen papera edo ez agertzea azpimarratu beharreko puntu bat da. Kartelak egiteko teknikak aipatu ditzazkete ere marrazkitik, argazkira eta ordenagailuz egindako diseinuekin amaituz azken hamarkadetan.

Aipatutakoak soilik festaren espresio anitzen adibide batzuk dira, helburua tradizio hauen baloreaz, konplexutasunaz eta izaera dinamikoaz ohartaraztea izango litzateke, interesa piztuz, baina baita jarrera kritiko eta arduratsu bat sustatuz. Honetarako festaren alderdi gatazkatsu bat aukeratu da, tauromakiarena, gai anitzekin lotu daitekeelako eta daukan zentralitate sinbolikoarengatik. Hala ere ezin dira Sanferminak zezenen inguruko festa batzuk bezala ulertu, edo ez soilik horrela, festetan adin, gustu eta pentsaera guztiz ezberdinak dituzten pertsonak elkartzen dira eta hauetako bakoitzak esperientzia, oroimen eta ondare ezberdinak aurkitzen ditu bidean.

3. ESKU HARTZE PROPOSAMENA.

3.1. Testuingurua

Iturrama BHI institutua izen bereko auzoan kokatzen da, Iruñeko hegoaldean. Ikastetxea 1986 urtean jarri zen martxan bigarren hezkuntzako euskarazko eskaintza publikoa osatzeko. Hasiera batean “G” eta “D” ereduak bat egiten zuten zentroan eta batxillergora mugatzen zen, baina 1995tik aurrera DBH eskainiko du ere eta zentro guztiz euskalduna bilakatuko da.

DBHko ikasleak Iturrama, Azpilagaña, Arrosadia, Donibane eta Aldezaharretik datoz. Tafalla, Zangotza eta Otsagiko institutoetatik etorritako ikasleak batzen plaza ziurtatuta daukate batxilergorako eta hauetaz gain boladaka beste toki batzuetako ikasleak etortzen dira, azken aldian Sakanako ikasle asko egonik. Nafarroako hezkuntza sistemaren hizkuntza eredu ezberdinen, ikasleen jatorriaren eta batxilergoaren hautazko izaerarengatik jatorri zein maila sozioekonomikoari dagokionean ez dago ezberdintasun handirik zentro honetako batxilergoko ikasleen artean.

Unitate didaktiko hau batxilergoan hautazkoa den Nafarroako Geografia eta Historia irakasgaiari aplikatu da, bi talde ezberdinekin, bata lehen mailakoa eta bestea bigarrenekoa.

3.2. Metodologia

Sarreran aipatu den eran ikerketa arazoa ikasgeletan ondarearen alderdi gatazkatsuen inguruko lan eskasa, hala nola, Sanferminak bezalako ondare lokal garrantzitsu baten irudi aldaezin eta akritikoa izango zen, animalien aurkako tratu txarren sentsibilizazio eskasaren isla.

Hurrengo hipotesia planteatzen da: Bigarren hezkuntzako ikasleek esparru lokaleko ondarearen dimentsio gatazkatsua landuz gero honen inguruko balorazio kritiko propioa garatuko dute, herritartasun kritiko eta parte hartzailea bultzatuz.

Ikerketaren helburu orokorra (HO) Iruñeako ondarearen inguruko proposamen didaktiko bat diseinatzea, praktikara eramatea eta bere eraginkortasuna neurtzea da. Honetaz gain Ikerketaren helburu espezifikoak hurrengoak izango ziren: Ikasleek proposamen didaktikoaren bitartez ondare kontzeptuaren oinarritzko ulermen bat garatu duten neurtzea (1HE), ikasleek ondare izan litezkeen zenbait elementuren inguruan dituzten balorazioak, hala nola, hauen aldaketak, neurtzea (2HE) eta ikasleek aurrera eramandako esku-hartzearekiko gogobetetasuna neurtzea (3HE).

Ikerketa honek ikuspuntu kuantitatibo eta kualitatiboak uztartzen ditu, baina azken honi ematen zaio lehentasuna. Datuak biltzeko orduan esku hartzearen hasiera eta amaiera uneetan pasako diren bi galdetegi izango dira tresna nagusiak. Hauetan kuantifikatu daitezkeen zenbait parametro neurtzen dira, esate baterako hainbat ondare elementuren balorazioa 1-8 eskala batean. Baina honetaz gain test hauetan haien erantzunak justifikatzeko, definizioak jartzeko, adibideak emateko eta haien iritzia azaltzeko eskatzen zaie. Testek eskainitako datuak osatzeko irakaslearen obserbazioak hala nola unitatean zehar sortutako produktuak erabiliko dira.

Lagina esku-hartzea aplikatu den 1. eta 2. Batxilergoko bi klaseetako berrogeita hamazazpi ikasleek osatzen dute, hogeita bost lehen mailan eta hogeita hamabi bigarrenean. Hasierako testa berrogeita zortzik erantzun zuten. Hauetatik heren zehatz bat gizonak kontsideratzen dira, %62,5 emakume eta bi ikaslek bestelako bat aukeratu zuten. Hogeita bederatzi ikaslek 2005 urtekoak zirela adierazi zuten, hamazazpi 2006koak eta bakar batek 2004koa.

Paradigma sozio-kritikoaren barne ikerketa ikerketa-ekintzaren bidez garatu da. Ez dira soilik hezkuntza errealitatearen zenbait alderdi aztertu, aurrera eramandako praktikaren inguruko hausnarketa burutzea bilatu da, autokritikaren bitartez hau hobetzeko helburuarekin.

3.3. Proposamenaren helburu didaktikoak

Hurrengoak izango ziren unitate didaktikoaren helburuak, ez dira ikerketa helburuekin nahastu behar.

1. Ondare kontzeptuaren oinarritzko ulermen bat garatzea.
2. Ondare lokal eta globala baloratzen ikastea.
3. Ondarearen izaera politikoa eta gatazkatsuz ohartzea.
4. Ondarearen izaera bizi eta dinamikoaz ohartzea, pentsamendu historikoaren aldaketa eta jarraikortasun konpetentzia landuz.
5. Identitate ezberdinek dakarten konplexutasunaz ohartzea eta besteekiko errespetuzko jokabide bat garatzea.
6. Mota ezberdinetako iturriak erabiltzea, interpretatzea eta egiaztatzea informazio baliagarria eskuratzeko.
7. Gatazken aurrean argudioetan oinarritutako gogoeta propio bat garatzea eta posizio propioa besteen ideiekin elkarrizketan ipintzea tarteko puntu edo kontsensu bat garatzeko.
8. Biolentziaren aurkako posizio kritiko bat garatzea.

9. Ingurumenaren eta izaki bizidunenganako errespetua garatzea.
10. Espresio kulturek genero errolek in dituzten erlazioak identifikatzea.

3.4. Curriculumarekiko lotura

Unitate didaktiko honek urte honetan aplikatzen hasi den LOMLOE legerari egokitutako Nafarroako curriculum berria pentsatuz prestatu da. Batxilergoko lehen eta bigarren mailan ematen den Nafarroako Geografia eta Historia irakasgairako egokitu da, aukera bikaina eskaintzen duena Sanferminak lantzeko, irakasgairako proposa den errealitate lokal bat izateaz gain ikasleak hurbilpen kritiko bat garatzeko heldutasun nahikoa daukatelako eta EVAUtik kanpo geratzen denez edukietan zentratzeko presiorik gabe kompetentzietan oinarritutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bat aurrera eramateko aukera suposatzen duelako.

Unitate Didaktiko honen garapenean ikuspuntu eta pentsamolde ezberdinak onartu eta errespetatu behar dira, elkarrizketarako jarrera ireki batekin. Hala ere, honek ez du esan nahi ustezko neutraltasun bat antzeztuko denik, biktima eta erasotzaileen, boteretsu eta ahulen arteko distantziakidetasuna bigarrenen aldeko posizio bat da. Gizarte Zientzien hezkuntza ez da ideologiarik gabeko jardura bat, balore batzuk dauzka, legeetan adierazten direnak, eta LOMLOEaren DBHko curriculumak irteera profila heldu duen ikasle oro aurre egin behar dituen erronken artean “animalien kontrako tratu txarrez jabetuta, jabetza arduratsua garatzea” dionean argi eta garbi uzten du (Nafarroa, Hezkuntza Kontseilaritza, 2022).

Curriculum berriak krisi ekosozialari aurre egiteko helburua aurkezten du irakasgaiko lehenengo kompetentzia espezifikoa (Nafarroa, Hezkuntza Kontseilaritza, 2022), hau ez dago unitate didaktiko honen helburu nagusien artean, baina aukeratutako hainbat baliabide helburu honi ekarpen bat egiten diote, adibidez “zezenak eta feminismoa” gaia lantzen duen azpitaldea A. Puleo egile ekofeministaren artikulua bat irakurtzen dute, zezenen eta naturaren arteko dominazioaren arteko alderaketa bat ezartzen duena, edo “ekonomia eta ingurumena” lantzen duen taldea dehesaren inguruko informazioa irakurtzen dute ere. Ostean eztabaidan talde osoarekin informazio hau partekatzea sustatuko da. Gainera nagusi diren ikuspuntu antropozentristak zalantzan jartzeko aukera eskaintzen du zezenen gaia. Hortik kompetentzia hau lantzen dela kontsideratzea.

Laugarren kompetentzia espezifikoak Nafarroako gizarteak denboran bizi izan dituen aldaketak, pentsamendu historikoarekin zuzenki lotzen duena; honen aniztasuna eta bidezkoak diren ideien aurreko errespetua barne hartzen du. Unitatean zehar sanferminetako festek bizi duten eboluzioa

azpimarratuko da, baita festa ulertzeko eta baloratzeko era ezberdinak, beti ere besteen eskubideekiko errespetuzko jarrera bat sustatuz.

Unitateko zati guztietan genero perspektiba eta emakumeen papera kontuan hartzen da. Kartel eta eskulturetan, hala nola zezenketa eta entzierroan emakumeek daukaten presentzia eta errol ezberdinak ikusarazten dira. Ikasleei zuzenean honen aurrean zer egin daitekeen hausnartzeko eskatzen zaie. Talde batek generoaren ikuspuntutik ikertzen du tauromakia eta beste baten iturrien artean poetisa baten olerki esanguratsu bat aukeratu da. Honekin 6. konpetentzia espezifikoa lantzea bilatzen da.

Azkenik 7. gaitasun espezifikoa, ondarearen inguruan ardazten dena, zentraltasun ukaezina dauka unitate didaktiko honetan. Ondareak autoirudikapenean daukan eragina aztertzen da hasieratik eta kontserbazio eta transmisioaren inguruko gatazkak lantzen dira era kritikoan.

7. taula.

Konpetentzia espezifikoa, ebaluazio irizpide eta oinarrizko jakintzak.

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak	Oinarrizko jakintzak
1., 4., 6. eta 7.	1.1, 1.2, 4.2, 6.1, 6.2, 7.1 eta 7.2	B.9, C.1, C.2, C.3

8. Taula

Funtsezko konpetentziak eta deskriptore operatiboak.

Funtsezko konpetentziak	Deskriptore operatiboak
a) Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia.	HKK1, HKK3, HKK5
b) Eleaniztasunerako konpetentzia.	EK3
e) Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.	KPSII1.2, KPSII2, KPSII3.1, KPSII4
f) Herritar konpetentzia.	HK1, HK2, HK3, HK4

h) Kulturaren kontzientzia eta KKAK1, KAKK2, adierazpenerako konpetentzia.

Funtsezko konpetentziei dagokionean ondarea zuzenean aipatzen duten bi deskriptore operatibo aurkitu ditzazkegu kulturaren konpetentzia eta adierazpenerako konpetentziaren barne, biek ondarearen hausnarketa bat eskatzen dute, esku hartze honen funtsa. Herritar konpetentziarekin konexio argi bat dago ere, azken finean iritzi argudiatuak, identitatearen inguruko gogoeta edota ingurumen eta gizartearekiko jarduera arduratsuak honekin erlazionatzen dira. Talde lan, eztabaida eta iturrien lanketaren bitartez konpetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoaren eskakizunak betetzen dira, Hizkuntza komunikazio eta eleanizkotasunaren konpetentziak betetzen diren era berean.

Laburbilduz, unitate didaktiko honek kurrikulum berriaren puntu nagusiei eusten die, halanola demokrazia, genero edo ingurunearen auzien inguruko kezka. Honetarako ondarea, iturri anitzen erabilera, hausnarketa, eztabaida eta partehartzea gakoak dira.

3.5. Jardueren Sekuentzia

1. Saioa.

Baliabide eta materialak:

- *Chromebooka* eta konexioa aurrezagutzen testa egiteko.
- Txano koloredun bat ondare izan daitezkeen elementuak dauzkaten paperekin (Ikusi 3. eranskina).

-Aurrezagutzen testa (15 minutu) (ikusi 1. eranskina).

-Proiektuaren aurkezpena (5 minutu).

Proiektuarekin zeren inguruan antolatzen den, zenbat saio eskainiko zaizkion eta nola ebaluatuko den azalduko da.

-Ondare Kontzeptuaren lanketa (20 minutu).

Faroko definizioa aurkeztu eta UNESCOak erabiltzen duenarekin alderatuko du irakasleak. Jarraian ikasle bakoitzari ondare izan daitezkeen edo ezin izan daitezkeen elementu bat

banatuko zaio (txapel koloredun batetik papera ateraz) eta banan banan ondare izan daitekeen ala ez, eta ondare izatekotan UNESCOko zerrendan dagoen, asmatzen saiatuko dira ikasleak, haien erantzunak arrazoituz (Ikusi 3. eranskina).

-San Ferminekin erlazionaturiko ondare elementu propioak aukeratzea (15 minutu)

Ikasleei haientzat Sanferminen osagai diren bi edo hiru elementu atsegin eta desatsegin aukeratzea eta hauen inguruan une batez hausnartzea eskatuko die irakasleak. Irakasleak arbelan apuntatuko ditu elementu hauek eta nahi duten ikasleek haien esperientziak partekatzea, eta beste ikasleak errespetuz entzutea, bilatuko da.

1. eta 2. Saioen artean

-Hurbilpenen taldeak osatuko dira ikasleen interesen arabera, aurretik aurrezagutzen testarekin bildu direnak.

Hurbilpenak:

- Gizaki eta animalien arteko erlazioak.
- Zezenak eta generoa.
- Zezenak, ekonomia eta ekologia.
- Zezenak eta Espainia.
- Zezenak eta legalitatea.

2. Saioa

Baliabideak:

- *Powerpointa* azalpenerako, proiektorea edo pantaila.
- *Chromebooka* eta konexioa.

-Azalpena (20 minutu).

Irakasleak *Powerpoint* aurkezpen baten bitartez Iruñarekin eta Sanferminekin erlazio zuzena daukaten zenbait eskultura, eraikuntza, pertsonai, gertakari eta prozesu historiko aurkeztuko ditu. Bakarriketa bat bihurtzea ekiditeko garrantzitsua da irudi bakoitzean galdera bat planteatzea ikasleei, eskultura bakoitza azaldu baino lehen non dagoen eta zer irudikatzen

duen galdetuko zaie esate baterako. Hari hau jarraituz “Sanferminak” atalean azaldutako gaiak aurkeztuko dira.

-Sanferminen kartelen analisisa (35 minutu) (ikusi 4. eranskina).

Aurreko mendeko Sanferminetako kartelen analisi tematikoa burutuko dute ikasleek. Talde bakoitzak epe bat aztertuko du gai ezberdinak zenbat karteletan agertzen diren zenbatuz (begiratu 6. taula proposatutako epe eta gaiak ikusteko). Lehen ariketa hau amaitzean bildutako datuak elkartu eta ikuspegi orokorrak eskaintzen duen irudiaren inguruan hausnartuko da. Emakumeek daukaten presentzian urrian edo zezenen protagonismoa jarriko da atentzioa eta gai ezberdinek denboran zehar izan dituzten gorabeherak ikusiko dira. Jarraian talde bakoitzari karteletan gertakari edo prozesu historiko bat bilatzea eskatuko zaio, emaitzak berriz ere amankomunean jarri.

3. Saioa

Baliabideak:

- Liburuak (6. Eranskinean).
- *Chromebooka* eta konexioa.

-Informazio bilaketa (55 minutu).

Hurbilpen talde bakoitzak dagokion iturriak erabiliz (6. eranskinean ageri direnak) dagokion galdetegia beteko du. Honetaz gain, denbora izanez gero, tauromakiarekin zerikusia daukan galdera propio bat egitera eta hau erantzuteko informazioa bilatzera animatuko zaie.

4. Saioa

Baliabideak:

- Ez da inongo baliabiderik behar saio honetarako.

-Eztabaida antolatua (55 minutu).

Mahai eta aulkiak alde batera utzirik ikasleak zutitu egingo dira eta irakasleak aurkeztuko dizkien zenbait esaldi edo proposamenekiko duten adostasun mailaren arabera gelako eskuinalde edo ezkerrean kokatuko dira, *serious game* moduko dinamika batean. Posizioak ezarri ondoren haien arrazoiak azaltzeko eskatuko die irakasleak. Lasaitasuna mantenduz haien artean argudioak elkartrukatzea bilatuko da. Erabateko adostasuna egonez gero

deabruaren abokatu egiteko aukera eskainiko dio irakasleak ikasleren bati (Esaldien zerrenda 5. eranskinean).

5. Saioa

Baliabideak:

- Papera eta boligrafoa.
- *Chromebooka* eta konexioa ondorioen testa egiteko.

-Alkateari zuzendutako eskutitzak idatziko dituzte proiektuan zehar jasotako hausnarketak islatuz.

Bakoitza berea egingo du lehenik (20 minutu). Hurrengo galderak orientabide izanik:

- Zer suposatzen dute Sanferminak zuretzat?
- Zezenketak, entzierroa, zezen-plaza, hauei lotutako eskulturak edo Sanferminak orokorrean dauden bezala kontserbatu, eraldatuz mantendu edo ezabatu behar dira?

Jarraian taldeko gutun bat idatzi beharko dute (20 minutu). Azkeneko galdera erantzun beharko dute talde kontsentsu batera iritsiz, posizio ezberdinen arteko tarteko puntu bat bilatuz, inoren iritzia guztiz baztertu gabe.

-Emitzen testa beteko dute (15 minutu) (2. Eranskinean).

3.6. Ebaluazioa

Ebaluazioa aurrera eramateko orduan hainbat errubrika erabiliko dira (Ikusi 7. Eranskina). Lehen errubrikak bigarren eta hirugarren saioetan taldeek betetako fitxa eta galdetegiak ebaluatzen ditu, bigarrenak klaseak laugarren saioko eztabaidan erakutsitako jarrera ebaluatzen du, hirugarrenak alkateari zuzendutako gutunak ebaluatzen ditu. Errubrika hauek orientabide moduan ulertu behar dira, aplikatu den taldeen mailara egokituta egonik.

Ebaluazioa sistema honek ikasle indibidualei, talde ezberdinei zein klase osoaren jarrera ebaluatzen du. Honetaz gain ebaluazioa ez da azkeneko saiorako uzten azterketekin egiten den moduan, ia jarduera guztiak ebaluatzen dira era jarraian.

3.7. Emaitzak.

Laginaren inguruan jada azaldu da ikasleen genero eta adinaren datuak, honetaz gain Iruñean bizi ez diren ikasleak zeudela ikusita Iruñean bizitako urteak eta sanferminetan izandako parte hartzearen inguruko galderak gehitzea erabaki zen, ondare lokalaren inguruko planteamendu bat izanik sanferminen aurrezagutzak eragina izan zezakelako.

9. eta 10. tauletan ikusi daitekeen bezala ikasleen gehiengo zabal bat Iruñean bizi da eta hainbat sanferminetan parte hartu du. Iruñean inoiz bizi ez direnen artean zortzi sanfermin baino gehiagotan parte hartu dutenak gehiengo dira ere. Sanferminetan inoiz egon ez diren bi ikasle baino ez daude, eta bi hauek batek telebistatik jarraitu eta gustuko dituela adierazi du testean.

9. taula

Iruñean bizitako urteak

Iruñean bizitako urteak	0	1-5	+15
Ikasle kopurua	14	5	39

10. taula

Bizitako Sanferminak

Bizitako Sanferminak	0	2-5	8+
Ikasle kopurua	2	9	37

Zenbait elementu ondare gisa zeukaten balorea puntuatzeko eskatu zitzaizkien testaren atal batean, 11. taulan balorazioen batez bestekoak ikus daitezke. Klasean landuko ziren elementuez gain beste bi zeuzkan galdetegiak alderatze aldera: Amienseko katedrala, ondare material monumental ohiko bat, eta oinetakoen lokarriak lotzeko teknikak, ondare kontsideratu daitekeen elementu inmaterial ezohiko bat.

Sanferminak izan dira batez besteko balorazio positiboena jaso duten elementua. Aldiz zezenketak balorazio negatiboena jaso dituen elementua izan da. Animaliek jasotzen dituzten tratu txarrak izan

dira balorazio hau justifikatzeko ikasleek eskaini duten arrazoi nagusia. Hala ere entzierroa bigarren elementu baloratuena izango zen.

11. taula

Ondare izan litezkeen elementuen lehen balorazioa

Ondare gisa baloratu beharreko elementuak	Batez besteko balorazioa (1etik 8ra)
Sanferminak	7,13
Entzierroa	6,48
Iruñeko eskulturak	5,49
Sanferminetako festen kartelak	4,92
Amienseko Katedrala	4,64
Oinetakoen lokarriak lotzeko teknikak	4,28
Zezenketak	3,88

Oinetakoen lokarriak lotzeko tekniken kasua interesgarria da, muturreko balorazioak jaso dituen elementu bat izan da. Batzuk ez diote ondare izaera egotzen “ez da Iruñea identifikatzen duen ezer”, “Ez delako gure lurraren ohitura edo kulturarekin zer ikusia duen zerbait”. Beste batzuk aldiz honen erabilgarritasuna eta antzinakotasuna nabarmentzen dute, “Guztiok beharrezkoa dugun beharra delako, belaunaldiz belaunaldi pasatzen dira”, “Teknika "ancestral" bat delako”.

Beste elementu interesgarria ondareari buruz dituzten ideiak ezagutzeko Amienseko katedrala izango zen. Honek balorazio orekatuagoak jaso ditu. Ikasleen gehiengoa ez zeukan Amienseko katedralaren existentziaren inguruko berririk, askok puntuazio baxuenarekin baloratu dute zer den ez dakitela azalduz. Hala ere zer den ez zekiten zenbaitek altu baloratu egin dute, esate baterako sei bat ipini dion ikasle batek honela azaltzen du “ez dakit zer den baina katedral bat da”. Katedral bat izanik, haientzat ezezaguna izan arren, ondare gisa baloratu izan behar dela uste izan dute askok “Zaharra eta garrantzitsua delako”, “Eraikin historiko bat delako”.

Era honetako erantzunek ikasleek ondare kontzeptuaren inguruan dituzten zenbait ideia azaleratzen dituzte. Testaren hasieran ondarea definitzeko eskatu zitzaizkion definizio nahiko laburrak eta osatugabeak eman dituzte ikasleek, definizio bat ematera iritsi direnean, izan ere hamar ikasle

definizio bat emateko gai ez zirela adierazi dute. Hamahiru ikaslek ondarea gizabanako baten jabetzen multzoa dela ulertu dute, kasualitatez denak gela berdinean zeuden eta ondare hitza Googlen bilatzean aurkitzen dena da, bakar batek eragiketa matematikoen hondarrarekin nahastu du. Beste guztiek ondarearen nolakotasunen bat edo bi nabarmendu dituzte. Herri edo kultura batekiko lotura, estatuaren babes eta monumentu izaera izan dira gehien errepikatu diren ideiak, bost erantzun ezberdinetan ageri dira gutxienez. Historiarekiko lotura, belaunaldien artean transmititzea, guztion jabetza izatea edo sinbolo izaera bizpahiru aldiz agertu dira. Haientzat ondare diren elementuak aukeratzekotan eman dituzten definizioekin koherenteak izan dira orokorrean.

Ikasleen definizioak eta justifikazioak uztartuz lehenengo test honek eskaintzen digun ondare kontzeptuaren ezagutzaren inguruko irudia hurrengoa da: zenbait ez daude ziur edo ez daukate ideiarik; beste batzuk kontzeptio zaharkitu edo mugatu bat daukate buruan, monumentalitatea, antzinakotasuna, materialtasuna edo errekonozimendu ofizialaren beharra nabarmentzen dutenetaz ari naiz eta beste batzuk alderdi jakin batzuk asmatzera iristen dira osotasuna adieraztera iritsi gabe.

Unitate didaktikoa amaitzerakoan ikasleek hasieran egindako test ia berdina egin zuten berriz. Tresna honen bitartez ondare kontzeptuaren ulermena, ondare izan litezkeen zenbait elementuren balorazioa eta garatutako proiektuaren inguruko iritziak jasotzea bilatu da.

Ondarearen definizioei dagokionean ikasle gehienek hiru ideia azpimarratzen dituzte: transmisioa, garrantzia eta edozer motako elementuak izateko posibilitatea. Orokorrean Faroko Hitzarmeneko edo UNESCOren 2003ko hitzarmeneko definizioekin bat egin dezaketen bertsio laburrak eman dituzte ikasleek. Bi ikasle baino ez dira okertu aldi honetan eta ondarea pertsona baten jabetzen multzoa bezala ulertu. Haientzat ondare diren elementuak aipatzerakoan soilik bi ikaslek aipatu dute haientzat ondare izatea ezinezkoa den elementu bat: esklabotza. Elementu hau ondare izan litezkeen elementuen zerrendan aurkitu daiteke (ikusi 3. eranskina), azpimarratu beharra dago izan litekeela, esate baterako XIX. mendeko estatubatuar batentzat, baina inolaz ere ezin dela izan egungo Iturramako ikasle batentzat. Beste bi ikaslek "lagunak" haien ondareen artean kokatu dituzte, berez gizakiak, hilkorak diren unetik, ezin dira ondare bihurtu, baina lagunez hitz egin ordez laguntasunaz hitz egiten badugu argi eta garbi ondare izan daitekeen kontu batez ari gara.

Nork erabakitzen duen zer den ondare guztiei argi geratu ez zaien kontu bat da, erantzun ezberdin asko eman dituzte ikasleek: bi ikaslek gobernuari egotzi diote eskumena, hamar ikaslek gizarte, komunitate, erakunde edo herri bezalako entitate kolektiboen esku dagoela adierazi dute, zazpik pertsonan kokatu dute eta besteek ez dute nork erabakitzen duen adierazi.

12. taulan testak ondare gisa daukaten balorea puntuatzeko eskatzen dituen elementuen balorazioaren emaitzak ikusi daitezke. Zalantzarik eskaintzen ez duen ondorioa ondare kontsideratu daitezkeen elementu hauen balorazioa gora egin duela izango zen, elementu guztiekin gertatu den fenomeno bat da. Hau ez du zertan esan nahi ikasleek elementu hauek hobere baloratzen dituztenik, izan ere puntuazioa era ezberdinetan ulertu dute kasu bakoitzean. Batzuk elementua ondare izan daitekeen ala ez baloratu dute, beste batzuk zentzu kolektibo batean ulertu dute ondare izaeraren egokitzapena eta gizarteak nola kontsideratzen dituen kontuan hartu dute, balorazio propioa egin duten ikasleak daude eta aurreko hiru interpretazioen mix bat egin dutenak ere¹.

12. taula.

Ondare gisa baloratu beharreko elementuen bigarren balorazio alderatua lagin osoan.

Ondare gisa baloratu beharreko elementuak	Batez besteko balorazioa hasierako testean (1etik 8ra)	Batez besteko balorazioa amaierako testean
Sanferminak	7,13	7,24
Entzierroa	6,48	6,66
Iruñeko eskulturak	5,49	5,86
Sanferminetako festen kartelak	4,92	5,8
Amienseko Katedrala	4,64	5,3
Oinetakoen lokarriak lotzeko teknikak	4,28	4,47
Zezenketak	3,88	4,67

¹ Zenbait adibide aurkeztuko ditut hemen, justifikazioekin batera ipini duten puntuazioa adierazten da.

1 “ez ditut gustuko”

2 “Niretzat ez direlako ondare”

5 “Aintzinetik datozelako eta etorkizunean iraungo dutelako eta garrantzi eragiten duelako jendearengan. Baina ez jende guztiarengan berdin, hau da, pertsona batzuentzat ez da batere garrantzitsua”

6 “San Ferminako ondarea da, baina ez zait gustatzen”

8 “Jarraitasuna izan dutelako eta gaur egun mantentzen diren jaiak direlako eta mundu osoan ezagunak direlako. Era berean garrantzia handia dute nafar penrtsonentzat”

Talde bakoitzean puntuazioak nola aldatu diren alderatuz gero beste irudi bat azaleratzen da. Batxilergoko lehen mailako klasearen kasuan lau elementuren balorazioa jaitsi egin da. Bigarren mailakoek aldiz soilik lokarriak baloratzen dituzte okerrago.

13. taula.

Ondare gisa baloratu beharreko elementuen bigarren balorazio alderatua lehen mailako taldean.

Ondare gisa baloratu beharreko elementuak	Batez besteko balorazioa hasierako testean (1etik 8ra)	Batez besteko balorazioa amaierako testean
Sanferminak	7,19	7,29
Entzierroa	7,11	6,79
Iruñeko eskulturak	5,88	5,95
Sanferminetako festen kartelak	5,62	5,52
Amienseko Katedrala	6,43	5,95
Oinetakoen lokarriak lotzeko teknikak	5,26	5,48
Zezenketak	4,73	4,33

14. taula

Ondare gisa baloratu beharreko elementuen bigarren balorazio alderatua bigarren mailako taldean.

Ondare gisa baloratu beharreko elementuak	Batez besteko balorazioa hasierako testean (1etik 8ra)	Batez besteko balorazioa amaierako testean
Sanferminak	7,10	7,21
Entzierroa	6,52	6,56
Iruñeko eskulturak	5,31	5,79
Sanferminetako festen kartelak	4,72	6
Amienseko Katedrala	4,11	4,85
Oinetakoen lokarriak lotzeko teknikak	3,93	3,71
Zezenketak	3,83	4,93

Sanferminen balorazioak altuak ziren hasieratik eta gora egin dute bi taldeetan. Puntuazioen justifikazioak alderatuz gero lehen testean gustuko dituztela eta nazioartean ezagunak direla aipatzen dute. Amaierakoan hauek errepikatzeaz gain haien garrantzia eta izaera tradizionala gehitzen dira.

Zezenketen kasua interesgarriena da. Batxilergo lehen mailan jaitsi egin da zertxobait, bigarren mailan aldiz indarrez hazi da. Emaizta honek eztabaida saioaren nondik norakoaren ondorio bat izan litekeela esango nuke, lehen mailakoek animalien sufrimenduan zentratu ziren gehiago eta zezenketetan ematen diren tratu txarren aurka agertu ziren, gutun kolektiboan adostasun batera iritsiz (8. eranskina). Bigarren mailan aldiz ez ziren adostasun batera iritsi eta zezenketen dimentsio ekonomikoa nabarmendu zen eztabaidan. Honi galderaren interpretazio ezberdinen distortsio faktorea gehitu behar zaio. Bigarren mailako ikasleen gutun gehienetan zezenketak ezabatu edo erreformatu beharra aipatzen da. Batzuetan espreski askorentzat ondare izan arren etikoki onartezinak direla aipatzen da. Ekonomikoki pisu garrantzitsu bat daukala edo legalki ondarea dela aipatzen dute beste batzuk. Ez dago argi puntuazio hazkunde hau subjektuarterko kontsiderazioa edota balorazio pertsonal bat islatzen duen. Dena den ez da antzeko igoerarik eman beste elementuen puntuazioen kasuan, kartelena salbuetsiz.

Bestalde entzierroaren balorazioak ez du aldaketa handirik bizi, jaitsiera txiki bat bizi du lehen lehenengo batxilergoko klasean eta igoera eskas bat bigarreanean, zezenketen balorazioekin korrelazio bat bezala interpretatu daitekeena.

Festen kartelek klaseen artean erreakzio ezberdinak piztu dituzte, bigarren batxilergoan 1,28 igo da batez besteko balorazioa, lehenengo mailan aldiz 0,10 jaitsi da. Bigarren mailakoek puntuazio erlatiboki baxua jarri zioten kartelei hasieran, hauek ezagututa haien balorazioa hobetu izana ez da harritzekoa. Lehen mailakoek aldiz diskurtso kritiko bat garatu zuten nabarmentzen zuten kartelen kalitatearen jaitsieraren aurka, bere eragina izan duena, "Orain dela urte batzuetakoak bai ondare direla baina gaur egunekoak ez" justifikatzen du ikasle batek esate baterako.

Iruñeko eskulturak igoera bat izan dute bi taldeetan. Justifikazioen artean eskulturek atzean daukaten historia aipatzen dute hainbat ikasle. Eskultura batzuk garrantzia daukatela eta beste batzuk ez nabarmendu nahi izan dute beste batzuk. Agertzen diren pertsonaiak inork ezagutzen ez dituela azaltzen dutenak badaude ere.

Amienseko katedrala eta lokarriak lotzeko teknikak, landu ez diren bi elementuak, igoera bat jaso dute, indartsuagoa katedralaren kasuan. Lokarriak iritzi polarizazio handia erakusten dute, puntuazio baxuena ipini diote hamalau ikaslek, hamarkada batek altuena jartzen dioten aldi berean. Bi taldeek

honen garrantziaren balorazio bat egiten dute, erabateko aurkako zentzu batean. Dena den jada ez dago ezjakintasunean babesturik tarteko baloraziorik eskaintzen duen ikaslerik. Amienseko katedrala ez dutela ezagutzen aipatzen dute askok aldiz, justifikazioetan nabarmentzen dena “Uste dut Notre Dame, Parisko pertsonentzako importantea izango dela, baina niretzako ez”, balorazio altua eman diotenenek besteentzat izan dezakeen garrantzia izan dute kontuan “Guretzako ez, baina han bizi diren pertsonendako ondare gisa suposatzen du”.

Amaitzeko ikasleek unitate didaktikoa nola baloratu duten jakiteko testak dauzkan bi galderen erantzunak aztertuko ditugu. Zerbait ikasi duten galdetu zaienean denek baiezeko erantzun bat eman dute. Alde positibo eta negatiboen inguruan galdetzean inpresio ezberdinak azaleratu dira, gehien baloratu dena eztabaidatzeko, ikuspuntu ezberdinak partekatze eta hausnartzeko aukera izan da. Hiriaren historiaren zenbait alderdi ezagutzea eskertu dute zenbait ikaslek ere. Jarduerak dinamikoak izan direla aipatzen dute zenbait ikaslek, baina astuna egin zaiela adierazten dute beste batzuk. Irakurketa saioa izan da jarduera kritikatu arrazoi honengatik, eztabaida saioa aldiz ikasleen oniritzia jaso du orokorrean, baina bi kritikarekin: ikasle batek zenbait unetan eztabaida gai berdinari bueltak eta bueltak ematen zizkiola seinalatu du eta beste bik ondorio kaltegarriak izan lituzkeela baloratu dute. Ikasle gutxi batzuk landutako gaiak interesik pizten ez dietela aipatu dute eta beste batzuk guztiz aurkakoa.

Bigarren mailako taldean gehien errepikatu den kritika unitatea aurrera eramateko daten ingurukoa izan da, koiuntura arazo bat, izan ere globalak hurbil zeuden eta ikasleak hauengatik kezkatuak zeuden.

4. ONDORIOAK

Ondare lokala lantzen duen esku-hartze didaktiko bat diseinatuta eta praktikara eramanda, bere eraginkortasuna baloratzea faltako zen ikerketa helburu orokorra (HO) betetzeko. Helburu didaktikoak neurri ezberdin batean bete dira praktikan. Ondarearen inguruan ikasi dutela baloratzen dute ikasleek, eta haien erantzunetan nabarmendu egin da. Eztabaida giroa errespetuzkoa izan da denbora osoan eta ikasleek iritzi eta argudio ezberdinak aurkeztu dituzte. Eskaini zaizkien iturriak erabili dituzte neurri batean baina zenbaitetan ez dute zeukaten informazio guztia baliatu. Ingurumenaren gaia zenbait unetan agertu arren hirugarren plano batean geratu da, generoa eta kulturaren arteko erlazioa gehiago interesatu zaie. Animalien tratu txarren inguruko eztabaidak interesgarriak izan dira, talde batean hauen aurkako posizio sendoak gailendu dira, bestean kezka

aurkeztu da baina tauromakiaren beste alderdi positibo batzuk nabarmendu dira ere, hala ere iritzi aniztasuna ageri izan da bi taldeetan, baita haien iritziak ñabartu dituzten ikasleak.

Honek hipotesiaren baieztatze bat suposatzen du, bai eztabaida bai eskutitzen bitartez haien inguruko ondare lokalaren inguruko proposamen kritiko eta original ezberdinak egin dituzte inplikazio maila esanguratsu bat erakutsiz. Hiritartasun autonomo eta parte hartzaile bat garatzeko beharrezkoak diren zenbait gaitasun praktikara eraman dituzte esku-hartzea iraun duen saioetan zehar.

Lehen helburu espezifikoki dagokionean (1HE) ondare kontzeptuaren oinarriko ulermen bat garatu dutela erakusten dute testen emaitzek, alderdi batean huts egin izan arren, ikasleen zati esanguratsu bati ez zaio argi geratu ondarea zer den erabakitzea edonoren esku dagoela. Klasean azaldutako kontu bat da, baina beharbada jardueretan behar bezain beste azpimarratu ez den alderdi bat da, hobetu egin daitekeena.

Bigarren helburu espezifikoki (2HE) jarraiki ikasleek hainbat ondare elementuren balorazioak neurtu dira. Neurri batean galderaren ulermen arazoa emaitzen baliagarritasuna mugatu badu ere hainbat konklusio atera daitezke hauengandik. Balorazioak, alderdi gatazkatsua landu izan arren, gora egin dute esku-hartzearen ostean era orokorrean. Fontal (2007) zenbait antzekotasun dauzkan ikerketa batean, ikasgelan landutako ondare elementuen balorazioen gorako joera bat antzeman zuen, ondarearenganako sentsibilizazioaren igoera batekin erlazionatu zuena. Krudelkeriaren ondare edo bestelako ondare gatazkatsuekin lan egitean kontuan izan beharreko arrisku bat da.

Hemen nabarmentzeko kontu bat landu ez den ondare elementu baten igoera izango zen, Amienseko Katedralarena. Ikasleen besteen ondare izan daitezkeen elementuenganako errespetua hazi egin dela argudiatu daiteke hauen zenbait justifikazio kontuan izanik. Baina Lucas eta Delgadok (2020) planteatzen duten moduan kultura dominatzailearen eta hedabideen irizpideek irakasleek planteatutako kontzepzioek baina eragin gehiago izan dezakete zenbait ikaslaren epaietan. Izan ere oinetako lokarriak lotzeko teknikak, gelaren zati handi batek ondare material baliotsu bat bezala ulertzen zuena, puntuazio baxuena jaso zuen beste ikaskide askoren aldetik.

Hirugarren helburu espezifikoa (3HE) ikasleen iritziak ezagutuz esku-hartzea hobetzeko hainbat ideia eskaintzen digu. Eztabaidatzeko aukera baloratu dute orokorrean, baina eztabaida honetarako informazio bilaketa zuzendua astunegia zela epaitu dute. Hobetze aldera azkeneko jardura hau birplanteatu beharko zen. Era ez harrigarrian unitateak balorazio negatiboagoak jaso ditu azterketen presioa eta ikasle kopuru handiago bat zeukan taldean.

Ondare lokalak hezkuntzaren arlorako daukan potentziala argituz joan zait proiektu hau burutzen nuen heinean. Ikasleek haientzat hurbilak diren errealitate hauekin lan egitean esperientzia propioan eta haien ikaskideenean oinarritu daitezke eta elkarrekin aberastu. Honek haien inguruko errealitateak epaitzeko eta azken finean hauetan eragiteko bultzatu ahal ditu. Ikasleak ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren erdialdean kokatzea erraza bihurtzen da era honetan, irakasleak jada ezagutzen duten zerbaiten inguruko datu ezezagun edo hausnartzeko bideak ireki ahal dizkie, baina beraiek dira azkeneko konklusio eta erabakiak hartu behar dituzten protagonistak.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Arazuri, J.J. (1983). *Historia de los Sanfermines*. Industria Gráfica Castuera.
- Arrieta, I. (2010). El campo patrimonial y museístico: un espacio cultural conflictivo. *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, vol. LXV, (2), pp. 303-336.
- Azanza, J.J., Muruzabal del Solar, J.M., Urricelqui, I. eta Zubiaur, F. (2010). *Guía de escultura urbana en Pamplona*. Ayuntamiento de Pamplona.
- Boix, S. (2011). *Toros sí. Una defensa razonada*. Martinez Roca.
- Callarisa, J., González, N. eta Santisteban, A. (2021). Un estudio de caso sobre una maestra y su papel en un proyecto interdisciplinar sobre patrimonio. *REIDICS: Revista de investigación en didáctica de las ciencias sociales*, (9), 207-222.
- Castro, B., Castro, L., Conde, J. eta López, R. (2020). Concepciones del profesorado sobre el uso educativo del patrimonio. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, vol. 95, (34.3), 77-96.
- Codina, J. I. (2018). *Pan y toros. Breve historia del pensamiento antitaurino español*. Plaza y Valdes.
- Cuenca, J.M. (2002). *El patrimonio en la didáctica de las ciencias sociales: análisis de concepciones, dificultades y obstáculos para su integración en la enseñanza obligatoria*. (Doktorego tesia). Universidad de Huelva, Espainia.
- Cuenca, J. M. (2016). Escuela, patrimonio y sociedad. La socialización del patrimonio. *UNES: Universidad, Escuela Y Sociedad*, (1), 22-41.
- Cuenca, J.M, Martín, M. eta Estepa J. (2020). Buenas prácticas en educación patrimonial. Analisis de las conexiones entre emociones, territorio y ciudadanía. *Aula Abierta*, vol. 49, (1), 45-54.
- De Troyer, V., Vermeersch, J., Van Genechten, H., Kösters, K., Mols, P., Van Leeuwen, Nicole Vitré, J., Pizzicanella, F., Destro, A. (2005). *Heritage In The Classroom. A Practical Manual for Teachers*. Het Gemeenschapsonderwijs.
- Delgado, E.J., Vela, J.A., López, E. eta Bernal, C. (2022). Citizenship, heritage and inclusive education: construction of a category system for the analysis of didactic experiences. *IJERI: International Journal of Educational Research and Innovation*, (17), 59-72.
- España, Cortes Generales. (2013). 18/2013 Legea, azaroaren 12koa, tauromakia kultur ondare gisa arautzekoa. BOE, 13-11-2013, 272, 90737 a 90740. [BOE-A-2013-11837-E.pdf](#)
- Estepa J. (2001). El patrimonio en la didáctica de las ciencias sociales obstáculos y propuestas para su tratamiento en el aula. *Iber: Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia*, (30), 93-106.

- Europako Kontseilua (2005). *Convenio Marco del Consejo de Europa sobre el valor del patrimonio cultural para la sociedad*, bere 199. tratatuan sinatua, Faron, 2005aren urriaren 27an. <https://rm.coe.int/16806a18d3>
- Fontal, O. (2007). El patrimonio cultural del entorno próximo: un diseño de sensibilización para secundaria. *Enseñanza de las ciencias sociales: revista de investigación*, (6), 31-48.
- Fontal, O. (2020). El patrimonio, de objeto a vínculo. In O. Fontal (Koord.) *Cómo educar en el patrimonio, guía práctica para el desarrollo de actividades de educación patrimonial* (pp. 9-24). Madrilgo Komunitatea.
- Galindo, R. (2018). *La tauromaquia animaliana*. Bellaterra.
- Gonzalez-Monfort, N. eta Pages, J. (2005). La presencia del patrimonio cultural en los libros de texto de la ESO en Cataluña. *Investigación en la escuela*, (56), 55-66.
- González-Monfort, N. (2019). La educación patrimonial, una cuestión de futuro. reflexiones sobre el valor del patrimonio para seguir avanzando hacia una ciudadanía crítica. *El Futuro Del Pasado: Revista Electrónica De Historia*, (10), 123-144.
- Gregorio XIII (1575). *Exponi novis*. In P. C. Juárez (ed.) *Clásicos españoles contra toros y toreros. La tempestad*.
- Ibañez, A., Fontal, O. eta Rivero, P. (2018). Educación patrimonial y tic en España: marco normativo, variables estructurantes y programas referentes. *Arbor: Ciencia, pensamiento y cultura*, vol. 194, (788), 1-17.
- Irigaray, S. (2013). El concepto de patrimonio cultural inmaterial. *Cuadernos De Etnología y Etnografía De Navarra*, vol. 45, (88), 121-124.
- Izu, M. (2021). *Los Sanfermines ya no son lo que eran*. Eunate.
- Kodrić, L. (2018). "The Future of Heritage and Heritage Studies: From Traditional to Controversial Heritage". In M. Mulalić N., Obralić A., Mulalić E., Jelešković (ed.) *The future of humanities, education and creative industries*, (pp. 298-308). International University of Sarajevo.
- Lucas, L., Delgado, E.J. (2020). El profesor posmoderno de ciencias sociales: un modelo de buenas prácticas en Educación Patrimonial. *Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, vol. 18, (1), 27-45.
- Melé, P. (2010). "Las dimensiones conflictivas del patrimonio". In A.R., Mantecon, E., Nivon (koord.) *Gestionar el patrimonio en tiempo*, (pp. 123-160). Juan Pablos editores.
- Nafarroa, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia (2019). 15/2019 Ebazpena, apirilaren 17koa, Germán Rodríguez Sáizen omenezko oroitarría eta "Gogoan" eskultura Nafarroako memoria historikoaren toki deklaratzeko eta hala inskribatzeko prozedura abiatzen duena. Nafarroako aldizkari ofiziala, 07-05-2019, 87. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2019/87/13/>

- Nafarroa, Hezkuntza Kontseilaritza (2022). 71/2022 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena. *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 04-8-2022, 155. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2022/155/1>
- Nafarroa, Hezkuntza Kontseilaritza (2022). 72/2022 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena. *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 26-8-2022, 170. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2022/170/4>
- Nafarroa, Hezkuntza Kontseilaritza (2022). 79/2022 Foru Agindua, irailaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan dauden ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko etapetan eskaini beharreko aukerako ikasgaien curriculuma arautzen duena. *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 25-9-2022, 211. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2022/211/0>
- Ortigosa, P. eta Latre, G. (1988). Los carteles de fiestas de San Fermín a través de la prensa el año 1952. *Principe de Viana, Anejo*, (11), 309-315.
- Pedrouzo, A. eta Castro, B. (2021). Del Pazo de Meirás a la Matanza de Oseira: intervención educativa sobre memoria, patrimonio y conflicto. *RIFOP: Revista interuniversitaria de formación del profesorado, continuación de la antigua Revista de Escuelas Normales*, vol. 35, (96), 11-28.
- Pio V. (1567). *De salutis gregis dominici*. In P. C. Juárez (ed.) *Clásicos españoles contra toros y toreros*. La tempestad.
- Puleo, A. (2004). Feminismo y tauromaquia. *El Viejo Topo*, (195-196), 72-77.
- Santacana, J. eta Prats, J. (2014). El patrimonio inmaterial y la educación: bases conceptuales para un planteamiento didáctico. *Her&Mus: heritage & museography*, (15), 8-15.
- Santisteban, A., Tosar, B., Izquierdo, A., Llusà, J., Canals, R., Gonzalez, N., Pagés, J. (2016). La literacidad crítica de la información sobre los refugiados y refugiadas: Construyendo la ciudadanía global desde la enseñanza de las ciencias sociales. In C. R., García, A., Arroyo eta B. Andreu (ed.), *Deconstruir la alteridad desde la didáctica de las ciencias sociales: educar para una ciudadanía global*, (pp. 550-560). AUPDCS.
- Santisteban, A., González, N. eta Pagés J. (2020). Critical Citizenship Education and Heritage Education. In E., Delgado eta J.M., Cuenca (koord.), *Handbook of Research on Citizenship and Heritage Education*, (pp. 26-42). Information science reference.
- Savater, F. (2010). *Tauroética*. Ariel.
- Seixas, P. eta Morton, T. (2012). *The Big Six Historical Thinking Concepts*. Cengage Learning EMEA.
- Singer, P. (2019). Animal Liberation at 30. In S. Holland (ed.) *Arguing about Bioethics*, (pp. 185-194).

- Soto, M. (2021). Nociones de patrimonio: Debates y reconfiguraciones de un concepto. *Revista Márgenes: Espacio, Arte Y Sociedad*, vol. 14, (21), 7-20.
- UNESCO (1972). *Convención sobre la protección del patrimonio mundial, cultural y natural*, Nazio Batuen Erakundearen Hezkuntza, Zientzia eta Kulturaren Konferentzia Orokorraren 17. bileran onartua, Parisen, 1972ko azaroaren 23an.
<https://whc.unesco.org/archive/convention-es.pdf>
- UNESCO (2003). *Convención para la salvaguardia del patrimonio cultural inmaterial*, Nazio Batuen Erakundearen Hezkuntza, Zientzia eta Kulturaren Konferentzia Orokorraren 32. bileran onartua, Parisen, 2003ko urriaren 17an.
https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000132540_spa
- Villegas (2017). La tauromaquia como valor cultural y medioambiental. Una aproximación comparada. *Revista Aragonesa de Administración Pública*, (49-50), 231-256.
- Velasco, P. H. (2016). Génesis, desarrollo y recepción en el derecho del concepto de patrimonio cultural. (Doktorego Tesia). UNED, Espainia.

ERANSKINAK

1. Eranskina - Aurrezagutzen testa

Testak Googlek eskaintzen duen inkesta zerbitzuaren bitartez burutu dira, hurrengo eskema bat izango zen:

Izena:

Adina:

Generoa:

Iruñean bizitako urteak:

Nola definituko zenuke “ondare” kontzeptua?

Aipatu zuretzat ondare diren hiru elementu.

Baloratu hurrengo elementuak (1etik 8ra) eta azaldu (hiru lerro gehienez) zergatik baloratu dituzun baloratu dituzun zenbakiarekin.

-Sanferminak

-Entzierroa

-Zezenketak

-Iruñeko eskulturak

-Sanferminetako kartelak

-Oinetakoen lokarriak lotzeko teknikak

-Amienseko katedrala

2. Eranskina - Ondorioen testa

Izena:

Nola definituko zenuke "ondare" kontzeptua?

Aipatu zuretzat ondare izango diren hiru elementu.

Baloratu hurrengo elementuak (1etik 8era) eta azaldu (hiru lerro gehienez) zergatik baloratu dituzun honela.

-Sanferminak

-Entzierroa

-Zezenketak

-Iruñeko eskulturak

-Sanferminetako kartelak

-Oinetako lokarriak lotzeko teknikak

-Amienseko katedrala

Proiektu honekin zerbait ikasi edo hausnartu duzula kontsideratzen duzu?

Zeintzuk uste dituzu direla proiektu honen alde onak? eta hobetzekoak?

3. Eranskina - Ondare elementuak

Elementu hauen artean ondare diren, izan daitezkeen edo inolaz ere izan ezin diren elementuen zerrenda bat osatu da. Ikasleek aipatutako hiru kategorien artean kokatu beharko dute egotzi zaien elementua beti ere Faroko hitzarmeneko definizioa erreferentzia gisa izanik.

Ondare diren elementuak (UNESCOren zerrendetatik ateratakoak):

- Txinako Harresi Handia
- Donejakue bidea
- Venezia
- Suizako Alpeak
- Argentinako glaziarak
- Dieta Mediterranea
- Gameluak deitzeko era tradizionalak
- Kanpaiak eskuz jotzeko ohitura
- Kun Lbokator (Kanbodiako arte martziala)
- Akupultura
- Azken afaria (Da Vinciren margolana)
- Lantzeko lñauteriak

Ondare izan daitezkeen elementuak:

- Mus, karta jokoa
- Esklabotza
- Ablazioa
- Pertsianak
- Tomate Frijitua

-Ikasleek klase ordutan koadernoetan egiten dituzten marrazkiak

-Doraemon (marrazki bizidunak)

-Kongoko Tatusi herriaren kondairen multzoa

-Gernikako arbola

-Fifa bideojokua

-Ilargia

Ondare *inolaz ere ez diren* elementuak:

-Shakira

-Erromatar Inperioa

-Buzefalo, Alexandro Handiaren zaldia

-Kepa Junkeraren azken kontzertua

-Planeta urrun eta ezagunezinen bat

-Erakartzen zaituen pertsonaren usaina

-Haur baten irribarrea

-Hemingwayek II Mundu Gerrari buruz idatzitako eleberria (galdua)

-Inori atentziora deitzen ez dion komediazko film bat

4. Eranskina - Sanferminen Kartelen Fitxa

Taldekideen izenak:

1. Kontatu ezazu zure taldeko epean zenbat karteletan agertzen diren hurrengo elementuak:

- Emakumeak
- Gizonak
- Zezenak
- Musika
- Erraldoi, kiliki edo zaldikoak
- San Fermin

Errepikatzen den esaldirik ikusten duzu karteletan? Zein?

2. Kartelen batean ikusten duzuen, edo zuen epeko kartelen osotasuna, gertaera historikoren batekin erlazionatu:

5. Eranskina - Eztabaidatzeko esaldiak

- Tauromakiak maskulinitate dominatzaile eta bortitz batekin lotu daiteke.
- Emakume gehiago parte hartu beharko lukete tauromakian.
- Tauromakia Espainiar identitatearen osagarri garrantzitsu bat da, Espainiar guztientzako ondare izanik.
- Tauromakiaren aurkako kritikak ondare kontsideratu daitezke ere.
- Tauromakiak pisu ekonomiko nabarmena dauka eta onura ekologiko handiak dakartza.
- Konstituzioak tauromakia defendatzen du. Soilik hau aldatuz amaitu daiteke praktika honekin.
- Entzierroan animaliek sufritu egiten dute, plazan gertatzen den kontu berdina da.
- Zezenketen aurkakoei animalien sufrimendua edo bizitza ez zaie benetan inporta, hanburgesak jaten dituzte lasai lasai.
- Iruñeko zezen plaza eraitsi eta tauromakiarekin erlazionaturiko beste ikur batzuk erre beharko lirateke.
- Estatuak tauromakia sustatu/ debekatu behar du.
- Ezin dira Sanferminak ulertu tauromakiarik gabe, festaren elementu zentral bat dira.
- Tauromakiak funtzio integratzaile bat dauka, denek parte hartu dezakete honetan nolabait.

6. Eranskina - Hurbilpenen galdetegiak

Animalien eta gizakien arteko erlazioen ikuspuntuak - Baliabide eta galderak

1. *Tauroetica* liburuaren 36-41 orriak irakurri eta erantzun galderei:

- Zein beste borrokarekin elkarlotu zen utilitarismoak egiten zuen animalien defentsa?
- Zer paper beteko luke gizakiak unibertsoan? Zein da Singeri egozten zaion kontradikzioa?
- Zergatik jotzen da ezinezkotzat animali eta gizakien arteko kontratu bat? Animaliak subjektu moralak kontsideratzen ditu Savaterrek? Hauekiko obligazioak existitzen direla uste du?

2. Irakurri Peter Singerren hurrengo artikulua eta galderak erantzun:

<http://www.sociales.uba.ar/wp-content/uploads/17.-Liberaci%C3%B3n-animal.pdf>

- Zer azaltzen zuen Singerrek testuaren lehen orrian aipatzen den artikuluan?
- Zer eragin izan zuen? Zer elementuk mugatu dute eragin hau?
- Zer da espezismoa?
- Zer defendatzen du Carruthersek? Nola erantzuten dio Singerrek?
- Zertan datza kasu marginalen argudioa? Zein da komunitate moralaren mugak garbitasunez ez zehaztearen arriskua Cavalieriren ustez?

3. Irakurri hurrengo albiste eta bloga eta alderatu islatzen diren tauromakiaren aurkako bi posizioak.

<https://derechosanimalesya.org/el-autoengano-antitaurino-estar-contrala-tauromaquia-no-los-salvara/>

https://www.eldiario.es/navarra/antitaurinos-san-fermin-protestas-corridas-debate-encierros_1_9128303.html

Zezenak, ekonomia eta ingurumena - Baliabide eta galderak

1. Irakurri hurrengo txostena eta erantzun galderai:

<https://toroslidia.com/wp-content/uploads/2018/04/INFORME-El-valor-econ%C3%B3mico-de-la-Feria-de-San-Ferm%C3%ADn-de-Pamplona.pdf>

1.1 Errentagarriak al dira zezenketak Sanferminetan? Zenbat diru lortzen du Erruki etxeak (*Casa de la Misericordia*) urtero txostenaren arabera?

1.2 Datuen jatorria azaltzen da honetan? Datu kontraesankor edo ez argiren bat nabaritzen duzu?

2. Irakurri hurrengo artikulua eta erantzun galderai:

<https://www.navarratelevision.es/noticia/Z0062C66A-93C3-479C-B3310378BD549FEB/202211/animanaturalis-denuncia-las-subsvenciones-a-festejos-taurinos>

2.1 Zenbateko subentzioa eskuratzen du tauromakiak Iruñean?

3. Irakurri hurrengo artikulua eta erantzun galderai:

https://www.eldiario.es/caballodenietzsche/empleo-fantasma-tauromaquia_132_2559894.html

3.1 Zein da zezenketen kopuruaren joera? (ehunekoa) Eta sortzen dituen lanpostuena? Nola azaltzen dira bi datu hauen alderaketa?

3.2 Estatuko dehesa eremuaren zer ehunekotan aurkitu daiteke zezena? Zein animalariari esker mantentzen da honen errentagarritasuna?

3.3 Zein erakundek ematen diete dirulaguntzak zezen esplotazioei?

4. Irakurri *A favor de los toros* liburuaren lehen pasartea, "Biología de los toros", eta erantzun galderai:

4.1 Zer erakutsi zuten Rodríguez Delgadoren ikerketek?

4.2 Zeintzuk dira zezenen erreakzioak arriskuaren aurrean? Zertarako dira adarrak?

4.3 Zezenketetan parte hartzen duten zezenak eta esnea ekoizteko behiak espezie edo azpiespezie ezberdinetakoak dira?

Zezenak eta Espainia - Baliabide eta galderak

1. "Pan y Toros. Breve historia del pensamiento antitaurino español" liburuaren 17-19 orriak irakurri eta erantzun hurrengo galderak:

1.2 Non ospatzen ziren animalien sufrimendua suposatzen zuten ikuskizunak Erdia Aroan?

1.3 Zein unetan aldatu zen hau?

1.4 Zer gertatu zen Espainiaren kasuan?

1.5 Zein hitz erabiltzen ditu autoreak zezenketak eta antzeko ikuskizunak deskribatzeko?

1.6 Zein da autoreak Espainiako antitaurinismoaren lehen adibide gisa ulertzen duena?

2. "Clásicos españoles contra toros y toreros" testu bildumaren barne bilatu eta irakurri testu hauek haien inguruko galderak erantzunez:

- Alfonso X. Jakitunaren Zazpi Partiden pasarte

2.1 Zeintzuk kontsideratzen dira *enfamados*?

2.2 Testuaren egileak tauromakiaren aurka zeudela kontsideratu daiteke?

- Pio V.ren *De salutatis gregis dominici* bulda eta Gregorio XIII.ren enziklika *Exponi nobis*.

2.3 Zer debekatzen du Pio V.-ak? Zergatik? Zer zigor ezartzen ditu debekua hausten dutenentzat?

2.4 Zer egiten du Gregorio XIII.-ak bere enziklikan? Zergatik?

- Carolina Coronadoren olerkia

2.5 Gaia eta autorearen intentzioa azaldu.

3. Hurrengo artikulua irakurri eta erantzun galderei.

<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2245/zezenen-itxala-argien-mendean/pribatutasun-politika>

3.1 Zer aldaketa eman zen XVIII. mendean tauromakiaren munduan?

3.2 Nork debekatu zituen zezenketak eta nork legeztatu zituen?

Zezenak eta legalitatea - Baliabide eta galderak

1. Irakurri hurrengo artikulua eta erantzun galderari:

<https://www.vozpopuli.com/espana/victorias-legales-toros.html>

1.1 Zeintzuk dira artikuluaaren tituluan aipatzen diren garaipen legalak? Nola lortu ziren?

1.2 Zein uste duzu dela albistearen egilearen iritzia lantzen duen gaiari buruz? Nola islatzen da hau artikuluan?

2. Aurreko artikuluan aipatutako Konstituzio Auzitegiaren ebazpen judizialak Kataluniako *parlament*-ak zezenak debekatzean konstituzioaren 9, 20, 27, 38, 40, 44, 46 artikulua urratu zituela kontsideratzen du. Bota begirada bat hurrengo estekan agertzen den konstituzioari eta erantzun galderari.

<https://www.boe.es/legislacion/documentos/ConstitucionEUSKERA.pdf>

2.1 Zer eskubide edo arlo jasotzen du aipaturiko artikulua bakoitzak?

2.2 Artikulu hauen artean zein iruditzen zaizue zezenketak debekatzeko oztopo handiena?

3. Irakurri hurrengo legearen hitzaurrea eta erantzun galderari:

https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2013/11/13/pdfs/BOE-A-2013-11837-E.pdf

3.1 Nola azaltzen da tauromakia lege honetan? Zer izaera egozten zaio?

3.2 Zein balore lotzen ditu Tauromakiarekin?

4. Irakurri hurrengo albistea eta erantzun galderari:

https://www.eldiario.es/caballodenietzsche/tauromaquia-vulnera-derechos-naciones-unidas_132_2037225.html

4.1 Zer eskatu zion NBEaren Haurren Eskubideen Batzordeak Espainiari?

4.2 Espainiar estatuak erabaki hau betetzera behartuta dago? Zergatik?

Zezenketak eta generoa - Baliabide eta galderak

1. Irakurri hurrengo testua eta erantzun galderari:

<https://asanda.org/documentos/tauromaquia/feminismo-y-tauromaquia>

1.1 Zergatik kontsideratzen zen emakumeek ezin zirela toreatzaile izan?

1.2 Zein izan zen alternatiba jaso zuen lehen emakume toreatzailea? Zer pentsatzen zuen feminismoari buruz?

1.3 Simone de Beauvoir zezenketen alde ala contra zegoen?

1.4 Zer da dominazioaren logika? Nola erlazionatzen ditu zezenketak eta maskulinitatea autoreak honekin?

1.5 Zer egin behar dute feministek Puleoren ustez? Emakumeei bertuteren bat eskatzen zaie?

2. Irakurri *La tauromaquia animaliana* liburuaren 121-122 orriak eta erantzun galdera.

2.1 Nola erlazionatu daiteke pasarte hau Puleoren testuaren ideiekin?

3. Irakurri hurrengo artikulua eta erantzun galderari:

<https://www.vice.com/es/article/vbmdz4/feministas-pamplona-andrea-lunes-lilas>

3.1 Zein aldaketa bultzatu dituzte talde feministek Sanferminetan? Jaso denak eta aukeratu garrantzitsuena iruditzen zaizuen.

3.2 Zer dio artikulua tauromakiari buruz?

4. Irakurri hurrengo artikulua eta erantzun galderari:

<https://zuzeu.eus/euskal-herria/iruneko-zezenketak/>

4.1 Nola erlazionatzen ditu tauromakia eta feminismoak lortutako aurrerapenak artikulua?

7. Eranskina - Errubrikak

17. taula.

1. Errubrika. Kartelen fitxa eta hurbilpenen galdetegiak, taldeak ebaluatzen dira.

	3	2	1	0
Sanferminetako kartelen fitxa	Kontaketa zehatza egin dute eta esaldi edo gertaera historiko batekin lotu dute	Kontaketan 5eko akats-tarte bat baino gehiago izan dute eta gertaera batekin lotu dute	Ez dute lotu gertaera historiko batekin	Ez dute egin
Hurbilpenen ariketak	Denak eginda eta zentzuz erantzunda	1 falta da edo iturriren bat era erabat okerrean interpretatu dute	1 egin dute era zuzenean	Ez dute egin

16. taula.

2. Errubrika. Parte hartzea eztabaidan, klasea ebaluatuko da

	3	2	1	0
Parte hartzea	Gela osoa edo ia osoa parte hartzen du eta protagonismoa nahiko banandurik dago	Gelaren erdia baino gehiago parte hartzen du	Ikasle gutxi batzuk baino ez dute parte hartzen.	Inork ez du parte hartzen
Errespetua	Interbentzioak errespetuz eta lasaitasunez gauzatzen dira	Zenbait unetan emozionatu egiten dira eta tonu altuegi batean hitz egiten dute	Eraso pertsonalen bat egiten dute edo tonu agresibo bat erabiltzen dute une batez, ondoren haien jarrera zuzenduz	Oihuka hasten dira eta irainak elkartrukatzen dituzte

Argudiaketa	Haien artean entzuten dira eta argudio propioak garatzen dituzte besteen iritziekin elkarrizketan	Aurreko saioan landutako diskurtsoak errepikatzen dituzte gehiegi garatu gabe edo ez dute interakzio handirik erakusten (bietako bat)	Aurreko saioan landutako diskurtsoak errepikatzen dituzte gehiegi garatu gabe eta ez dute interakzio handirik erakusten	Falaziak erabiltzen dituzte aldioro eta ez dira haien artean entzuten
-------------	---	---	---	---

17. taula

3. Errubrika. Azken saioko eskutitzak, bai norbanakoa bai taldekoa, gehi banakako partehartzea.

	4	2	0
Talde gutuna	Haien kabuz kontsensus batera iritsi dira, inork ez du bere posizio propioa abandonatu inolako lorpenik gabe, tarteko formularen bat aurkitu dute	Puntu batzuk adostu dituzte baina gutxiengo batek bere iritzia islatzera errenunziatu du	Ez dute inolako adostasunik lortu
Banakako gutuna	Eskatutako luzera dauka (lau lerro) eta ezarritako galderak erantzuten ditu	Ez dauka eskatutako luzera edo ez ditu ezarritako galderak erantzuten	Ez da entregatzen
Banakako parte hartzea	Parte hartzea eskatu denean parte hartu du era boluntarioan	Parte hartu du zuzenean eskatu zaionean	Ez du parte hartu inoiz

8. Eranskina - Lehen batxilergoko taldearen eskutitza.

Iruñeko Alkateari

2023ko apirilaren 28a, Iruñea

Alkate jaun agurgarria,

Iturrama institutuko lehen batxilergoko ikasle talde bat gara eta Sanferminekin lotutako hainbat ondareren inguruan lan egiten egon gara aste batez gelan. Ondorengo eskakizunak proposatu ditugu festak eta haien ondarea hobetze aldera:

-Zezenketak beste eginkizun batengatik ordezkatzeari edo gutxienez biolentziarik gabeko ikuskizun bat izateko moldatzea.

-Entzierroa mantentzea.

-Festen kartelen aukeraketa prozesua errebisatzea azken urteetan nabari den kalitate jeitsiera konpontzeko eta emakumeen presentzia bezalako faktoreak kontuan izateko.

-Musika eskaintza zabaltzea eta hiritarrek, hala nola Iruñerriko beste biztanle batzuk, honen kudeaketa eta antolakuntzan parte hartzeko aukera izatea.

-Segurtasuna hobetzea festetan, puntu more gehiago ipiniz esate baterako.

Adostutako puntu amankomun hauetaz gain ikasle bakoitzak eskutitz propio bat zuzendu dizu, idazki honekin batera helarazten zaizuna.

Aurkeztutako proposamenak kontuan izango dituzularen segurtasunarekin agurtzen gara.

Iturrama institutuko 1. Batxilergoko Nafarroa eta Geografia klasea